

GUaiXe.eus



Guaixe astekaria
abenduaren 11ra
arte oporretara
doa



Sakanako Enpresarien Elkarteak
ibarrean 20 urtetan estreinakoz
langileendako prestakuntza
jarraiturik ez dela izanen salatu du



Sakanerria>> 5

Elikagai Bankuak
jaki bilketa egingen du
asteburuan

>>7

Irurtzunen Euskal
Ekitaldiak eta Altsasun
Euskararen Eguna

>>9

Etxarri
Sakanako
sortzaileen
agertokiye

>>15

Amiantoarekin
lan egindakoen
elkartea
sortzeko deia

>>8

Zorri azoka,
hausnarketa-
rako etenaren
aurretik

>>5

Fernandez,
brontzeko
domina
mundialean

>>11

Emakumeen
futbol eguna
bihar Altsasun

>>12



Sexu indarkeriaren
kontrako esku moreak

>>3



zozketa

abenduaren 22an,
12:00etan

3 komertziotan zigilatu eta bulegora ekarri
(Foru plaza, 23-1, Altsasu)

1. SARIA

2 lagunendako
2 gaueko
egonaldia
lekua aukeran



2. SARIA

2 lagunendako
larunbat gaua
txabola batean
eta Finlandia saioa





ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • **ALTSASU** • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Ekhi
ZORIONAK gazte!!
Listo 12 urte!! Ongi pasa zure urtebetetzean eta muxu pila bat. Etxeko koen partez.



Eneko Reparaz
Anabitarte
Gure mutilak gaur 8 urte!!! ZORIONAK!!!



Mario
Zure egun berezi hone-tan ZORIONAK eman nahi dizkizugu. Amato, zure arrebak Amaia eta Ainhoa eta zure ilobatxoak Amets. Muxu handi bat.



Irune
ZORIONAK IRUNE!!
Egun ona pasa. Familia guztiaren partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra: 4,00€

Bazkideak: 3,50€

azaroak-abenduak 27-10

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

La viuda negra eta Nekez. Azaroaren 27an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean.

Arturo Kanpion abesbatza. Azaroaren 28an, larunbatean, 19:00etan Hiriberriko elizan.

Salatxo abesbatza. Azaroaren 29an, domekan, 12:30ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Elkhos ahots taldea. Abenduaren 3an, ostegunean, 13:00etan Irurtzongo elizan.

Etxarri Aranazko abesbatza. Abenduaren 3an, ostegunean, 13:00etan Bakaikuko elizan.

Erkudengo Ama abesbatza. Abenduaren 3an, ostegunean, 13:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Gaztelu Ahotsak. Abenduaren 3an, ostegunean, 13:00etan Olaztiko kultur etxean.

Dantza

Sustraiak. Azaroaren 28an, larunbatean, 20:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Dantzarima.**

Antzerkia

La maquina del dueño. Azaroaren 27an, ostiralean, 22:00etan Olaztagutiako kultur etxean. **Plataforma Tirante.**

Un loco de desatar. Azaroaren 28an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Juan Sanchez Vallejo.**

Cletaren ametsa. Abenduaren 6an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Gus Marionetak.**

Zinema

Requisitos para ser una persona normal. Azaroaren 27an, ostiralean, 21:45ean eta azaroaren 29an, domekan, 20:00etan Altsasun.

Marte. Azaroaren 27an, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren 29an, domekan, 20:10ean Altsasun.

Campanilla y la leyenda de la bestia. Azaroaren 29an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Dragon Ball Z: F berpiztua. Abenduaren 3an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Del reves (inside out). Abenduaren 4an, ostiralean, 17:00etan Izurdiagako elkartean.

Un otoño sin Berlin. Abenduaren 4an, ostiralean, 22:00etan eta abenduaren 6an, domekan, 20:10ean Altsasun.

El becario. Abenduaren 10ean, ostegunean, 19:00etan Altsasun.

Pailazoak

Amalur. Abenduaren 3an, ostegunean, 17:00etan Irurtzongo kiroldegian. **Pirritx, Porrotx eta Marimotots.**

Ipuin kontalaria

Ipuinak mara-mara. Azaroaren 27an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Maidar Galartza.**

Bizikleta irteerak

Herediako baltsa. Azaroaren 29an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 60 km. **Barranka TT mendi bizikleta taldea.**

Sakana. Abenduaren 6an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 50 km. **Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Irteerak

Donostiako zientzia museoa. Abenduaren 8an, asteartean, 10:00etan Irurtzundik. Aizpean, Irurtzongo euskaltzaleen topagunea.

Erakusketak

Bitiko zein gaurko jostelanak II. Abenduaren 6ra arte, 18:30etik

21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Maribel Mazkian.**

Altsasu Memoria II. Abenduaren 8tik 20ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Askatasunaren bidean, presoak etxera! Azaroaren 27an, ostiralean, 19:00etan Irurtzongo kultur etxean eta abenduaren 2an, asteazkenean, 19:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Sortu.**

Abenduak 6, inposaketen gainetik, bagoaz. Azaroaren 27an, ostiralean, 19:00etan Arbizuko udaletxean. **Hizlaria: Sabino Cuadra. Sakanako Ernai.**

El amianto mata. Hiltzaile isila. Zer egin? ¿Qué hacer si lo manipulaste? Azaroaren 27an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Hizlaria: Jesus Uzkudun Illarremendi. Asviamie elkartea.**

Bertsolaritza

Bertsotruk, Sakana & Mungia/Larrabetzu. Azaroaren 27an, ostiralean, 22:00etan, Etxarri Aranazko Leku Ona tabernan.

Literatura

La fábrica de sombras (Ibon Martin). Abenduaren 1ean, asteartean, 19:00etan Altsasuko Haritza tabernan. **Aurretik gonbidapena jaso.**

La comedia humana (William Saroyan). Abenduaren 5ean, larunbatean, 18:00etan Irurtzongo liburutegian. **Irakurle taldea.**

Can: hemen ez da ezer gertatu (Joserra Senar). Abenduaren 10ean, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Irakurle taldea.**

La casa de la buhardilla (Mari Romero Fernandez). Abenduaren 10ean, ostegunean, 19:00etan

Altsasuko lortia kultur gunean. Gonbidapena liburutegian jaso.

Tailerrak

Emozio adimena. Azaroaren 28an, larunbatean, 18:00etan Lizarragan. **Gozamenez.**

Bestelakoak

Andra Mari ikastolaren eraikin berriaren mustutzea. Azaroaren 28an, larunbatean, 11:30ean Etxarrin.

Eztanda Irratiaren 16. urteurrena. Azaroaren 28an, larunbatean, 11:30etik aurrera Iturmendin. **IGA.**

Wii-ak, play stationak eta pantailak. Azaroaren 28an, larunbatean, 19:00etatik 23:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Kantu afaria. Azaroaren 28an, larunbatean, 22:00etan Hiriberriko Txitera elkartean. **Etxarrekin.**

Mahai jolasak, euskaraz. Azaroaren 29an, igandean, 12:00etan Irurtzongo Pikuxar euskal txokoan. **Familia mintzakidea.**

Lakuntzako II. Gastronomia Topaketa. Hego Amerika. Azaroaren 29an, igandean, 18:30ean Lakuntzako Pertza elkartean. **Txingurriye.**

Euskararen Eguna. Abenduaren 3an, ostegunean, 11:00etatik aurrera Altsasun.

Euskarak 365 egun. Abenduaren 5ean, larunbatean, 10:00etatik aurrera Irurtzongo karpan. **Aizpea, Irurtzongo euskaltzaleen topagunea.**

Zorri azoka, merkatu soziala. Abenduaren 6an, igandean, 11:30etik 14:30era Etxarriko estalopean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 27an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

Gure Esku Dago. Azaroaren 28an, larunbatean, 18:00etan Bakaikun. Bilkura irekia.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 29an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.



Izena	
Bi abizenak	
Nortasun agiria	
Helbidea	
Herria	
Telefona	
Posta elektronikoa	
Bankuko kontu zenbakia	

Bazkide egiteko beharrezko datuak

Urtean 50€ren truke

Guaixe ostiralero buzoian

%10eko deskontua eskeletan

%5eko deskontua diseinu zerbitzuan

%25eko desgrabazioa errenta aitorpenean

%12ko deskontua zorion agurretan

Sariak hilabetero

85 komertziotan abantailak eta deskontuak

ezkaatza >>

Azaroak 25, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna

>> Altsasu

Sexu indarkeriaren kontrako ikasle konprometituak

Altsasu eta Sakana institutueta, Iñigo Aritz ikastolako eta Sagrado Corazon ikastetxeko DBHko 205 ikasleek hartutako konpromisoen berri eman zuten herenegun

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna dela eta euren ikastetxeetan tailer banatan parte hartu dute. Gazteek euren espazioetan (koadrila, festa, ikastetxe edo batzuetan familia) inguruko neskek jasaten dituzten sexu erasoak tratatu dituzte. Goikoetxeak argitu zuenez, “inork ez du nesken kontrako sexu-erasoak dudari jarri. Eta honek, arraroa izan arren, alde positiboa du. Zerbait ezabatzeko dagoela ikusi behar baita. Hori da indarkeriarekin hausteko lehen pausoa”. Pauso hori ikasleek eman dutela aitortu zuten. Eta hartutako konpromisoak beste urrats bat direla gaineratu zuten.



Indarkeria matxistak estatuan hildako emakume bakoitzeko esku more bat.

Konpromisoak, alde batetik, neskek eta, bestetik, mutilek irakurrizituzten, “emakumeenganako indarkeriaren kontra paper desberdinak jokatzen baitugu eta, horregatik, jarrera desberdinak hartu behar ditugu”. Publiko egin-

dako konpromisoak aurrera eramanez dituztela espero zutela gaineratu zuten Goikoetxeak. Herenegun goekitaldian publiko egin zituzten konpromiso horiek. Ekitaldia Lorena Arangoa clownaren saioarekin despeditu zen. +www.guaixe.eus

Konpromisoetako batzuk

Neskenak
Elkar laguntzea.
Norberak bere sexu bizitza du eta ez dugu ez psikologikoki ez fisikoki iraintzea. Sexu eraso bat ikusten edo sufritzen badugu erreakzionatzea. Sexu erasoak jaso duen edo jasotzen ari den pertsonari laguntza eskaintzea. Gure artean ez iraindu eta errespetua izan. Eraso baten aurrean elkar laguntzea. Defendatzen hasia. Eskotea beldurrik gabe jantzea. Makillajea aurpegia estaltzeko ez erabiltzea. Gustatzen ez zaigunean EZ esateko konpromisoa hartzea. Mutilekin hain “bigunak” ez izan eta “rolloa” hainbeste ez segi eta defendatzea. Neskei buruz mutilek egiten duten komentario sexistei erantzuna ematea. Tabernatik ateratzerakoan edo komunerako joaterakoan inor bakarrik ez uztea. Festagi roan mutila neska erasotzen ari dela ikustean, inguruan laguntza eskatu eta neskari gustura dagoen galdetzea. Elkar errespetatzea eta ez iraintzea.

Depilatu nahi ez duen emakumearen esku-bidea aitortu eta ez iraintzea. Ideia sexisten inposizioaren kontra lan egin. Geu errespetu gaitzaten helburua jarri.

Mutileenak

Txiste sexistarik ez egitea. Emakume mozortuek ez aprobetxatzea. Begirada lizunik ez egitea. Etxeko gauzetan berdintasunez jokatzeko zerbait egitea. Lagunartean komentario sexista bat entzutean lagunari esan duen horretan pentsatzeko eskatzea. Etxera joateko ikara duten neskei laguntzea. Bortxaketa kasuan bortxatzailea eta bortxatua bereizi eta azken horri laguntza eskaintzea. Sexu bereizketarik ez egotea. Estereotipoak desagitea. Piropero sexistak lekuz kanpo daude. Emakumeak berdinez bezala tratatzea. Ikasgelara etortzen den neska besteak bezala tratatu eta integratzen laguntzea. Sexu eraso baten aurrean kontra atera. Bere burua defendatu ezin duen emakumea laguntzea. Emakumea objektu gisa ez erabiltzea.

>> Olatzagutia

Indarkeria antzezlan bihurtua

Gaur, 22:00etan, Olatzagutiako kultur etxean

Azaroaren 25a dela eta Olatzagutian antolatutako egitaraua despeditzeko Plataforma Tirantek *La máquina del dueño* antzezlan eka-rikodu. Emakumeenganako indarkeria sistemikoa ardatz duen obra Estibaliz Villa eta Jose Iñan-k zuzendu dute; Villa bera Alex Antunezekin batera igoko da eszenatokira. Han irudi errealean ikus-entzunezko proiektzioa, dantza garaikidea, propio sortutako soinu banda eta gure kulturaren egunerokotasunetik gertu dauden testu iradokitzaileak izanen dira. Guztiek, bidaia intentsu batean, gure baitako (ez)ezagunera garraiatuko gaituzte. Azken finean, gure barrura begiratzeko eta erre- alitatea, gure ingurua, erlazioak, sinesmenak eta sentimenduak, jokatzeak eta maitatzeko moduak kritikoki begiratzeko probokazioa da antzezlan. +www.guaixe.eus

>> Arbizu / Olatzagutia

Indarkeria matxistari stop!

Horixe aldarrikatu zuten 30 bat arbizuarrek asteazken iluntzean egindako kontzentrazioan. Elkartu zirenen parean sexu indarkeriagatik hildako emakumeak irudikatuz kandelak eskutan beltzez jantzitako eta maskara txuriak aurpegian zituzten sei emakume jarri ziren.

Olaztin, bestalde, 50 bat per-

sona elkartu ziren. *Hau ez da gure bakea, autodefentsa feminista* leloa zuen pankarta zabaltu zuten. Sexu indarkeriarekin bukatzea “guztion ardura, jendar- te guztiarena” dela aldarrikatu zuten. Aurretik, Fatima Djara Sanik munduko hainbat emakume- k pairatzen duten ablazioari buruzko hitzaldia eman zuen.



Arbizuko elkarretaratzea. ENARA INSAUSTI

>> Altsasu

Mugimendu feminista: “indarkeria sexistaren kontrako borrokan apustu garbiak egiteko garaia dugu”



Emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunean egindako kontzentrazioan 50 bat pertsona elkartu ziren udaletxe aurreko aldean. *Indarkeria sexistaren aurrean hartu zure ardura. Aski da!* leloa zuen pankarta zuten buruan. Mugimendu feministako kideek bukaera adierazi zutenez “bada garaia sistema honek sor- tzen duen beldur eta biolentzia

arduraz kudeatzeko, erradikaltasunez, hau da, arazoaren erro- ra jo” behar dela, “norberaren jardunetik gure praktika politiko kolektiboetara pasatuz. Ardura lekualdatu, banatu eta indarkeria sexistaren kontrako borrokan apustu garbiak egiteko garaia dugu, bakoitza bere eremutik, norabide berdinean”. +www.guaixe.eus

ANDRA
MARI
IKASTOLA

Azaroak 28 • 11:30ean

Egitaraua:

- * Irekiera
- * Eraikina ezagutzea
- * Auzatea

Eraikin Berriaren
IREKIERA EKITALDIA

Gure ikastolako bazkide, bazkide ohi, ikasle, ikasle ohi, langile, langile ohi eta sortu zenetik orain arte bidelagun izan zareten guztiak gonbidatuak zaude!!!



Xabier Reparaz Extramiana

astekoa

Gure kabuz ala hil

Gaur Donostian estreinaldia du *Gure kabuz ala hil* izeneko dokumentalak, gazteen frustrazioa eta prekaritatearen aurrean alternatiba bat sortzeko gogoen isla Gazte Abertzaleen ikuspegitik gurrera.

Kaleume hitza gogorregia agian, baina garapen pertsonale-

rako tresna aproposik gabe geratu da gure gazteriarren zati handi bat. Beste batek gure arazoak konponduko dizkigulakoan, guk geuk gauzak egiteari uzteko segadana erori gara azkenik.

Oinetakoen sokak lotzen ez dakien haurraren pare bizitzaren ateetan. Bonbila bat aldatzen edo

erosketa egin eta bazkaria prestatzen ez dakien gazteak zaila izanendu. Soluzioen bila, saltzen dizkietenak baino ez dituzte ikusiko, manipulazioen biktima, mugikor batean youtubeko bideoeiso. Wasaparen erakuskerian galduta eta sare sozialetan kateatuta. Bapatekotasunera ohituta, pazientzia

eskas. Frustrazioetatik babestuak txikitatik, nola onartu ezetz bat erantzuntzat? Nola ulertu bizitzak behin eta berriz eroriaraziko dituela berriz altxa daitezen?

Altxatzen ikastea. Porrotak eta ezetzak onartuz haiei esker hobetzea. Nahi dugun hura, amets hura lortzeko guk geuk eginda-

kolana zabalitzea. Gauzen zergatiaz galdetu eta kritikoak izatea. Bidetik atera eta bidea kanpotik hasita ikusiz gure norabideaz kontzientzia hartzea. Azken finean bizitza adarretatik eustea. Sakanara iritsiko da dokumental hau ikusteko aukera, burua astintzeko balioko al digu!

hara zer dien Ezkutuan dauden adikzioak

Antsietatea eta depresioa dira osasun mentaleko desoreka ohikoak, eta hauek, OME-ren (Osasunaren Mundu Erakundea) esanetan, gizonezkoengan baino eragin handiago dute emakumezkoengan. Lasaigarriak eta somniferoak dira emakumeek gizonek baino gehiago kontsumitzen dituzten psikoaktibo bakarrak, Plan Nacional sobre Drogas txostenak esandakoen arabera, bikoitza baino gehiago. Alkohola eta tabakoaren ondoren, gehien kontsumitzen diren drogak dira pilu-

la hauek.

Gaur egun, botika hau populazioaren %12ak erabiltzen du, 2005. urtean erabiltzen zenaren bikoitza. Medikuek, gehiegi errezetatzen dituztela eta beraiei erabileraz dutela kontrolatzen onartzen dute. Europako herrialdeen artean pilula hauen kontsumoa gehien hedatu den tokia Espainia da.

Medikuaren errezeta beharrezkoa duen droga legal bakarra dela esan genezake. Botika merkea, epe motzean eragiten duena eta ondorio txar handirik gabe-

koa da. Lo egiteko, barruan darabagun piztia lasaitzeko, egoera txarrei aurre egiteko edo eta bizitzarekin aurrera egiteko lagungarriak izan daitezke.

Baina aipatutako abantaila hauetaz aparte, pilula hauek menpekotasun handia sorrazteko gaitasuna dutela jakin behar dugu. Gero eta dosi handiagoak behar izaten dira efektu berdina lortzeko. Bai medikuarendako eta bai gaixoarendako ere, errekurso azkarra eta erraza da hasiera batean. Sarri, medikuek

eta gaixoei tratamenduarekin noiz hasten diren badakite, baina ezin dute jakin noiz bukatuko den.

Emakumeek beraiei arazoak pilulekin arintzen omen dituzte eta gizonek, aldiz, alkoholarekin. Medikuek eta psikologoek esanetan, gizonek, medikura joan behar izan gabe, adikzioetarako joera handiagoa dute, eta aldiz, emakumeek, laguntza eskatzen dute, haien oinazea azaltzen dute eta medikuak esandakoa egiten dute.

Bestalde, badago pilula hauek

kontsumitzeko beste arrazoi indartsu bat: oinazeak inolako konnotazio ezkorrik gabe arintzen ditu, eta hau emakumeengan eragiten duen arrazoia omen da.

Azkenik, emakumeen antsietatea ez da kasualitatea, hormonek baldintzatzen omen dute eta andre-ek badute horretarako joera. Gizarteak berak ere joera horretan badu zerikusi handia: lanaldi bikoitzak, bakardade egoerak...

Sakanako Prebentzio Programak

gutunak

Andra Mari Ikastola: zorionak eta mila esker!

Iñigo Orella Altzueta

Asteburu honetan Andra Mari Ikastolak bere eraikin berriaren inaugurazioa ospatuko du. Horren harira, nire bizipen pertsonal eta profesionalek abiatuta, gure familia Ikastolen proiektuarekin maitemintzea eta identifikatzea azalduko duen hausnarketa hau partekatu nahi dut.

Zer da Ikastola? Ikastola, zalan-tzarik gabe, ez da euskaraz ira-

kasten duen beste ikastetxe bat, askoz gehiago baizik: herri ekimenez eta auzolanez sortutako proiektua, gestio eredu demokratikoa eta gardenena non fameli-ek parte hartze zuzena daukagun, teknologia berriak integraturik dituen kalitatezko proiektu pedagogiko aitzindaria, ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen dituen, etengabeko formazioan eta ebaluazioan dagoen irakasle talde hurbila, egonkorra eta bertakoa, laikoa, hezkuntza zerbitzu publikoa eskaintzen duen guraso kooperatiba, erreferentziatzat Euskal Herria hartzen duena... hau guztia, eta batez ere gozotasunez berdintasunetik eta desberdintasunaren errespetutik gure seme-alabak gure hizkuntza eta gure kultura maitatzera gonbidatzen duen proiektua. Ikastolan dena ez da arrosa,

arazoak eta desadostasunak ere badaude, baina baita hobetzeko borondatea eta proposamenak egiteko bideak ere.

Eraikin berriak eskaintza aberats hau espazio egokiagoetan garatzea ahalbideetako du, baina eraikina baino askoz garrantzitsuagoa da Ikastolaren Hezkuntza Proiektua, hau da Andra Mari Ikastolaren altxorra. Irakasleak naizen heinean, funtsezkoa iruditzen zait azpimarratzea gure seme-alaben ongizate integrala helburu duen hezkuntza proiektua, ikas komunitate guztiarekin adostua, Euskal Herri-rik eta gure berezitasunetik abiatuta, gure umeei burua eta bihotza mundu zabal eta anitzera irekitzen dizkien proiektua, gaur eta bihar gure haurrei egokituko zaien errealitatean herritar konpetenteak izan daitezen ahalbi-

detzen duen proiektua. Ikastolek konpetentzietan oinarritutako Euskal Curriculum berea egin, garatu eta irakasleak formatu ondoren, klaseratzen dute. Zoritarrez Sakanan zentro baka-rrak dira.

Bukatzeke, gure Ikastola osatzen dugun guraso, ikasle, langile eta laguntzaile guztiak zoriondu nahi ditut, baita 46 urte hauetan familia handi honen parte izan zareten mila-ka sakandar ere, eraikin berria lortzeko ametsa errealitate ederra bihurtu delako. Ezerezetik ahaletzen handiz familia gutxi batzuek abiatutako herri egitasmo xume hura, gaur egungo eta etorkizuneko ikasle eta fami-lien nahia aseko duen proiektu bikaina bilakatu da. Aldi berean, Andra Mari Ikastolako profesional eta langile taldeari biho-

tzez eskertu nahi diet gure seme-alabekin egiten duten lan zoragarria, ikasle bakoitzarekin adierazten duten kezka, jarraipen pertsonalizatua eta gertutasuna. Eta guraso batzordean eta lan taldeetan izugarritzko inplikazioa erakutsi duten partaideei ere, mila esker musu-truk eskainitako denbora eta ahaleginagatik. Ezin dut ahaztu orain dela sei urte Nafarroa Oinezen bitartez babesa eta ezinbesteko laguntza eman ziguten herritar eta babesle ugari. Honek guztiak nabarmentzen du Andra Mari Ikastola Sakanako 14 herritan ongi errotutako proiektua dela eta zabala, oso zabala. Familia guztiek daukate tokia gurean. Jarrai dezagun bada, gure hezkuntza garatzen, EUSKARAZ BIZITZEN eta Sakana ERAIKITZEN!!



ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitx Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso
ZUZENTZAILEA: Garazi Garzia
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:



SARIA 3MB PLATAFORMARENDAKO: Lizarako Ekologistak Martxan taldeak Jatorra saria eman zion 3 Mugak Batera Plataforma larunbatean. Ekologistek sari horre-

kin Olaztiko errausketa proiektuaren kontra lan egiten duen plataformaren lana aitortu nahi du. +www.guaixe.eus

sakanerria >>

SAKANA

Sakanan ez da langileendako prestakuntza jarraiturik izanen 20 urtetan estreinakoz

SEEk hainbat eragileri ibarreko langileek Nafarroako gainontzeko aukera berak izan dezaten lan egiteko eskatu diete

Espainiako Gobernuak aurtan langileendako prestakuntzajarraituko funtsak banatzeko metodologia aldatu du, konpetentzia askeko sistema ezarritik. Hartan prestakuntzan aritzen diren enpresa guztiak aurkeztu daitezke. Horren ondorioz, Sakanako Enpresarien Elkarte (SEE) sortu zenetik, 1996tik, estreinakoz aurtan ez da langileendako prestakuntzajarraiturik izanen Sakanan. SEEtik azpimarratu dutenez, prestakuntza jarraituko ikastaroak “enpresen lehiakortasuna ziurtatzeko ezinbestekoak dira, eta gehiago izanen dira, teknologiaren eta kudeaketa prozesuen aurrerapenarekin”.

SEEk gaztigatu duenez, legegintzaldi aldatetak ikastaro gehienak Iruñean antolatzea dakar, “langile gehiago daudelako eta taldeak osatzeko langile kopurua osatzea errazago delako”. Prestakuntza enpresek irabazia izateko Sakanan ikastaroak behar bezala antolatze beharrezko lanak egiteko prest ez daudela azaldu dute SEEtik. Horre-



Langileak Utzaganen, Sakanako garapen gunean, trebatzen. ARTXIBOA

gatik, elkarteak “Sakanako langileek Nafarroako gainontzekoen aukera berak izateko beharrezko gestioak egiteko” eskatu die gutun bidez Altsasuko Udalari, Sakanako Mankomunitateari, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendaritzari, CENeko zuzendariari, UGT eta CCOOko idazkari nagusiei eta ELA eta LAB sindikatuei.

Jarduera

Elkarteak sortzearekin batera, 1996an ekin zion SEEk langileen-

dako prestakuntza sustatu eta hobetzeko kezka azaldu zuen. 20 urte hauetan egin dituen jardueretako batzuk dira: Lanbide Heziketako prestakuntza mahaian parte hartu, ziklo berriak martxan jartzeko proposamenak, ikastetxeko eta Nafarroako Gobernuko ordezkariekin elkartu edo langile eta langabeendako prestakuntzajarraituko ikastaroak eskaini. SEEk eskainitako kalitatezko prestakuntza jarraituko ikastaroak “antzeko ezaugarriak dituz-

SEEn prestakuntza ikastaroen buruzko datuak

540 prestakuntza ikastaro baino gehiago.
4.700 ikasle.
162.372 prestakuntza ordu.
2,5 euroko aurrezte kilometraje, denbora eta abarretan 1996-2014 artean
0,8 eta milioi bat euro artean bideratu dituzte urtero kotizazio bidez Sakanako enpresek (0,7) eta langileek (%0,1).

ten eskualdeetan (Mendialdea) ez dira egon”.

SEEk kideek gogorarazi dute ibarrean ikastaroak antolatzea ez dela erraza. “Publizitatea egitea ez da nahikoa ikasleak erakartzeko. Gaiak, data eta irakasle egoienak aukeratu behar dira. Eta, horretarako, egin beharrekotak dira: enpresen beharrezko bitartekak, langabetuei elkarriketak, eskaera gehien izan dezaketen gaiak identifikatu, publikitatea hainbat euskarriren bidez

egin... “Lan handia da Sakanan prestakuntzajarraitua kudeatzea eta antolatzea”.

NEZen erantzuna

Mank-en herenegun jaso zuten eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin (NEZ) berehala jarri ziren harremanetan. NEZetik Aitor Karasatorrerierantzundiotenez, “gure langileen prestakuntza eta Sakanako enpresen etorkizuneko langileen konpetentzia berrien premien beharrendiagnosisia egiten ari gara”. NEZetik Mank-eko buruari esan dietenez, “Sakanako enpresen premien bi eskaerari erantzuna emateko lanean ari gara. Premia horiek erantzunak emateko proposamenak geuk egiten ditugu”.

NEZetik SEEk eskatutako baldintzak betetzen dituen edo programa aurkeztu duten ez dakite. Bestalde, NEZtik Karasatorrerri jakinarazi diote, “gobernu akordioan jaso bezala, Lanbide Heziketako ikastetxeak langileendako prestakuntzajarraituko tresna bihurtzeko lanean ari gara”.

>> Etxarri Aranatz

Zorri Azokan Sakanako eskaintza

Abenduaren 6an, igandean, 11:30etik 14:30era Etxarri Aranatzko estalopean. Antolatzaileek iragarri dute egitasmoaz hausnartzeko eten bat eginen dutela ondoren

Zorri Azokak elkartzen dituen Sakanako ekoizleak, artisauak eta artistak euren salgaiak jendaurrean abenduko aurreneko igande eguerdian jarriko dituzte. Etxarri Aranatzan izanen da. Handik pasatzen denak lehen sektoreko produktuak eta artisau eta artisten lanak

eskuratzeak aukera izanen du. Ohi denez, Sakanan bertan ekoizten ez diren produktuen ekoizle bat gonbidatuko da. Gainera, halanahi duenak, trukerako tokia izanen du. Beharrez duen hori beste zerbaitengatik trukatzeko aukera izanen du han. Arte adierazpideei beti egin zaie tokia azokan eta oraingoan ere ez du hutsik egingen.

Zorri Azokan parte hartu nahi dutenek merkatu sozialaren antolakuntzan lagundu beharra dute.



Denetarikoz postuak izanen dira atzera ere Etxarri. ARTXIBOA

Hori da hasieratik jarritako araua. Azoka ibarreko ekoizleen, artisten eta artisauen erakusle izateko sortu zen. Bertako helburuak sus-

tatz Sakanako ekonomian eragin nahi zuten. Horrekin batera, salerosketara mugatzen den azoka bat baino zerbait gehiago izan nahi

zuen, sakandarren topagunea izanen da. Horregatik azoka sozialarena, irekia eta parte-hartzailea nahi zutelako. Hasierako helburuei garrantzia eman eta haiek nola txertatu aztertzeak abendukoaren ondoren gelditu eta hausnartzera elkartuko dira sustatzaileak.

2013ko agorrilaren aurreneko ostiralean egin zen estreinako Zorri Azoka. Urte bateko eskarmentuarekin data igandera aldatzera erabaki zuten eta 2014ko irailetik hileko lehen igandean egin izanda. Etxarriko udaletxeko estalopea eta plaza hartu dute azoka, eta frontoia bakarren batean ere. Etxarriaz aparte beste herri batzuek ere ezagutu dute azoka soziala.

asi
arreta eta orientazio
psikologikorako zentrua

Arantxa Sueskun Igoa
PSIKOLOGOA
PSIKOTERAPEUTA
Elkargokide-zk.: N-0806

Urbasa kalea 15, beheak
31800 - Altsasu (Nafarroa)
669 367 422

Ana Santano

Bularra ez da soilik elikadura

Edoskitzea mina izatetik,
bizitzako handiena
izatera pasatzen denean

635 811 106
Gartzia Ximenez 16 · Altsasu

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua 8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 · Altsasu

Ogiaren artisauak

PORTUKO okindegia

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153



Nonerabili

SORKUNDE HARATEGIA

ALTSASU

50 €ko erosketetan etxeko produktua doan

BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

IKER KIROLAK

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

% 20ko deskontua kontsultan.

BASOMUTUR

ALTSASU

Menuan eta kartan %6ko deskontua.

BILTOKI TABERNA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doan. Karta menuan, kopa doan.

IÑAKI OINETAKOAK

ETXARRI ARANATZ

50 €ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

GERTU SAKANA

ALTSASU

Sukalderako tresnerian 50€ko erosketa egitean %10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

AINHOA ESTETIKA

IRURTZUN

Utsusuky packetan, %30eko deskontua.

ASENSIO

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

www.guaixe.eus-en
zerrenda osoa ikusgai



>> Altsasu

Altsasu Memoriak bigarren erakusketa prestatu du

Abenduaren 8tik 20ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean ikusgai

Altsasu Memoria taldeak herriko historia osatu eta berreraikitzeke zeregina beretako hartu zuen. Joan den urtean 76 eta 1950 urte- en arteko Altsasuko hainbat gertakari errepassatu zituen ekitaldi eta erakusketa banatan. Garagarrean, berriz, 1950etik 1992ra bitarteko historia pasarteak jaso eta ezagutarazi zituzten ekitaldi batean. Orain azken garai horretako materialarekin erakusketa ondu du taldeak.

Abenduaren 8an, asteartean, 19:00etan mustuko da erakusketa. Ekitaldi xume bat iragarri dute mustutzeko. Erakusketak Jose Ramon Urtasun margolari iruindarraren bederatzi koadro izanen ditu, estreinakoz, Euskal Herrian jendaurrean ikusgai jarriko direnak. Haietako hiru ezagunak dira



Erakusketak informazioa hainbat euskarritan emanen du.

liburu banaren azala ilustratzeko erabili dituztelako (*Corralito foral*, *Cristos en las escuelas* eta *Julia Alvarez*). Taldekideek ohore handizat dute primizia hori izatea.

Margolanen ondoren argazkiz eta testuz osatutako kronologia izanen da ikusgai, hamarkadaka banatua dagoena. 1950/60 Frankismoa eta Altsasu tristura orokorpean; Fasako greba (1956) eta atzerriko informazioa kanpoko irra-

tien bidez. 1960/70 lege kanpoko alderdien jarduna; gizarte gatazkak; euskal folkloreak jazarpena eta aurreneko ikurrinak. 1970/80 Burgosko prozesua eta Altsasun izan zuen eragina; Gure Etxea kultur eta gizarte erreferentia; Aberri Eguna; erregimenaren erreforma eta atxilotetak. 1980/92 Estatu kolpea; gerra zikina Altsasun; torturak; Otan; gazteria eta intsumisioa.

>> Iturmendi

Eztanda Irratiak urteurrena ospatuko du

Iturmendiko irrati libreak uhinetan 16 urte egin ditu eta hori ospatzeko irratiia sustatzen duen Iturmendiko Gazte Asanbladak urteurren ospakizuneko egitaraua antolatu du biharko. Ospakizunean iturmen-diarrak eta sakandarrak parte hartzea gonbidatu dituzte.



Egitaraua

11:30ean Herri kirolak.
14:30ean Makarronada.
16:00etan Karaokea.
19:00etan Pintxo-potea, Pancho Balbuena mariatxiak girotua.
20:00etan Javierori omenaldia gaztetxean.
22:00etan Bertso-afaria: Saats Karasatorre eta Xabier Igoa bertsolari-ekin.
01:00etan Gaupasa Dj Sergey-rekin, gaztetxean.

>> Irurtzun

Sasoiak zerbitzu publikoak aldarrikatu ditu

Sasoiak, jubilatutako eta pentsionistak elkarteak, pentsio duinak, osasungintza publikoa eta kalitatezkoa, kopagorik ez, sendagarri guztien ordainketa eta bestelako eskaerak publiko egin zituen. Irurtzongo azokan izan zen, asteartean. Gaiekiko kezka dagoela agerian utzi zuen San Martin jubilatuek elkarteak antolatutako hitzaldiak.



Pentsio duinen, osasun sistema publikoaren alde eta berrordainketaren kontra.

>> Lizarraga

Herriak egiten duen omenaldia

Erkuden Ruiz Barroso

San Klementerekin batera elurra etorri da, mendi tontorretara behintzat. Lizarragan santu horren omeneko festak ospatu zituzten asteburuan. Une hunkigarriena igandean izan zen. Urtero bezala herriko adinduak omendu zituzten kontzeju etxean. Gazta, ardoa eta musika ez ziren falta festan.

Musikarekin dantza egiten zuten herriarrek, beste batzuek indarrak berreskuratzen zuten bitartean. Une

garrantzitsuena ordu biak pasata izan zen. Maria Dolores Larraza Berastegi eta Lucio Ezkerra Osteriz omendu zituen herriak.

Ezin izan zuten dantza egin, baina herriko neskatoek agurra dantzatu zieten haiek "merezi dutelako". Ondoren, urtero lege, oroi-garri bana eman zieten. Maria Doloresek maitasun guztiagatik eta omenaldiagatik eskerrak eman zuen.

+www.guaixe.eus



Argazki oina.

>> Etxarri Aranatz



Isabel benta gabe 25 urte

1990eko azaroaren 27an, gaur 25 urte, Isabel bentak su hartu eta erabat suntsitu zen. Astearte hartako goizaldean piztu zen sua. Hura itzaltzera Altsasu eta Iruñeko parkeko suhiltzaileak joan ziren. Garren kontra ezin izan zuten gauza handirik egin. Gainera, Altsasuko suhiltzaileen kaboa zen Venancio Amillano altsasuarra larri zauritu zen teilatuaren hegala gainera erortzean. Ezbeharraren ondoren Urtega-Barandiaran familia errepidez bestaldeko Etxe Berria deitutakora aldatu ziren.

+www.guaixe.eus

>> Lakuntza

Avelina Flores: «gorentziyek lakuntzar guziei»

Hilaren 10ean 100 urte bete zituen Avelina Flores Anduezak. Eguna bederatzi seme-alabekin, 14 ilobekin eta 6 birbilobekin ospatu zuen. Bisitak ere jaso zituen. Lakuntzako alkate Patxi Xabier Razkin izan zen haietako bat eta lakuntzarren ize-nean opari txiki bat eman zioten. Iruñeko alkate Joseba Asiron ere etxean izan zuen Avelinak. 60ko hamarkadan Lakuntzatik Iruñeko Txantrea auzora joan zen bizitzera. Han familia aurrera atera zuen. Pasaden urtera arte udaguztiak Lakuntzan eman ditu, senideekin eta lagunekin harremana ez baitu galdu.



» Altsasu

Udalaren eta ADEren arteko hitzarmena berrituta

Altsasuko Udaleko gobernu batzordeak Altsasuko Dendarien Elkartearekin duen hitzarmena berritzea erabaki zuen astelehenean. Javier Ollo Martinez alkateak gaztigatu duenez, "Altsasuko komertzioak urte zaila ieus-tea lortu du. Udal gisa ADE laguntzea dagokigu, gure herriko bizi sozialeko agente nagusietako bat baita".

Bestalde, ADEk proposatuta, Altsasuko Udalak udaletxe pareko berdegunearen eskuinean dagoen zuhaitzean eguberritako argia jartzeko oniritzia eman du. Eguberri garaian tokiko merkataritzasustatzeko asmoz onartu du proposamena udalak.

Argiak Altsasuko enpresa bati alokatu zaizkio eta udalak eta ADEk erdibana ordainduko dituzte.

Zuhaitzaren argiztapena abenduaren 2an eginen den ekitaldi batean piztuko da. Hura gozatzeko ADEk txokolate-jana eskainiko du. Herriko gainontzeko kaleetako argiak, berriz, 3an piztuko dira.

» **SAKANA**



Gobernuak Eguberri-erosketak denda txikietan egitera animatu du

Nafarroako Gobernuak *Denda txikiak*, pertsona handiak izeneko publizitate-kanpaina abiarazikodu hurbileko denden balioak azpimarratzeko. Haren bidez foru administrazioak saltoki txikietan Eguberrietako erosketak suspertu nahi ditu. Kanpainaren aurkezpenean Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusi Maitena Ezkutarikesan zue-
nez, sektoreak “auzoak eta herriak antolatzen ditu, kalitatezko enplegua sortzen eta zerbitzu bereizgarri bat eskaintzen, hurbiltasuna”. Ezkutarik nafar guztiei eskatu die beren auzoko edo herriko saltoki eta dendak gogoan izan ditzatela datozen egunotan egingo dituzten erosketetan. +www.guaixe.eus

SAKANA

Jaki bilketa erraldoia asteburuan

Nafarroako Elikagai Bankuak 500 tona baino gehiago bildu nahi ditu

Nafarroako Elikagai Bankuak jaki bilketa erraldoia iragarri du gaurko eta biharko, “*Goseak bertan jarraitzen du*” lelopean. Oso gaizki pasatzen ari diren familia asko daude, eta gosearekin bukatzeko laguntza eskatu du Nafarroako Elikagaien Bankuak. Helburua Nafarroan 500 tona jaki baino gehiago biltzea da. Nafarroan 74 herritan

jakiak bilduko dituzten boluntarioak egongo dira, tartean Sakanako makina bat dendatan, ohiko saltokietan. Nafarroako Elikagai Bankuak jaki bilketa egiteko boluntarioakeskatu ditu. Eta, jakina, herri-tarrei jakien bilketa kanpainen parte hartzeko deia egin die.

Non iaso

Sakanako saltoki handietan eta ohiko dendatan. Etxarrin, musi-



Boluntario izateko edo informaziorako: www.bancoalimentosnavarra.org

ka eskola zaharrean (ostiralean 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara eta larunbatean 10:00etatik 13:00etara). Arbizun Eroslen, Inaxiren denda eta elizan.

Haur Hezkuntzako 503 ikaslek fruta kontsumo kanpaina parte hartzen ari dira

Nafarroako Gobernuak haurren artean fruta kontsumoa sustatzeko ikastetxeetan kanpaina abiarazi du eta ekimena Irurtzungo Atakondoa eskola publikoan aurkeztu zuen atzo. Nafarroako Gobernuak (%25) eta Europako Batasunak (%75) finantzatzen dute ekimena. Sakanako bederatzi ikastetxeetako Haur Hezkuntzako 503 haur parte hartzen ari dira kanpaina. Azaroaren 16tik abenduaren 18ra bitartean, astean hirutan, ikasleek 150 gramoko fruta errazioak jasoko dituzte, 11 gutxira (sagararak, udareak, platanok, laranjak eta mandarinak).

Bestalde, Caixa fundazioa eta

Ikasleak		
Herria	Ikastetxea Ikasle	
kopurua		
Irurtzun	Atakondoa	130
Uharte Arakil	Aralarko Mikel donea	39
Lakuntza	Luis Fuentes	41
Arbizu	Arbizu	35
Etzarri Aranatz	San Donato	71
Iturmendi	Arrano Beltza	11
Urdiain	Urdiain	21
Altsasu	Zelandi	115
	Sagrado Corazon	40

AN talde kooperatiboaren fundazioak fruta eta barazki kontsumoaz sustatzeko ekimena dute esku artean. Haren bidez, hurrek elikagaiak etxera eramaten dituzte (fruta, brokolia eta errezeta bat).

Atzoko aurkezpenean Landa



Atakondoako haurrak fruta jaten atzo. NAFARROAKO GOBERNUA

Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendarinagusi Ignacio Gil, Nafarroako CaixaBankeko Oskar Insausti eta Jose Luis

Larriu, AN kooperatiba taldeko fundazioko zuzendari Maite Muruzabal eta Atakondoa ikastetxeko Silvia Sanchez izan ziren.

Izan zaitez euskararen aldeko Akuilari telefono mugikorrarekin

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak telefonoetarako aplikazioa sortu du euskararen gaineko gertaeren berri emateko

HizkuntzEskubideenBehatokiak
Euskararen Telefonoa zerbitzua
kudeatzen du. Telefono horretan
hizkuntza eskubideen inguruko
gertaerak jasotzen dira, kexak
-esaterako, “X administrazioan
ez zegoen euskaraz arrera egingo
zuen langilerik”- eta baita zorian-
tzeak ere- “X saltoki berria zabal-

du dute eta karteletan euskararen presentzia bermatu dute”. Baina zerbitzuari jauzi berri bat eman diote, eskuko telefonoetarako aplikazioa jarri baitu indarrean Behatokiak, Akuilari aplikazioa.

Tresna honekin herritarrek azkarrago eta erosoago, gertatutako unean bertan helerazi ahal izango dizkiete Behatokiari hizkuntza eskubideei lotutako gertaerak, kexak eta zorionak. Eta erabiltza-

leek bertan ikusi ahal izango ditu Behatokiari helarazitako kexa eta zoriontze guztiak. Eta sare soziale-tan hedatzeko aukera ere eskaintzen du. Euskaraz bizi nahi dutenenda-ko tresna garrantzitsua izango da.

Akuilari aplikazioa Android eta iOS sistema eragileak dituzten gailuetarako prestatuta dago eta hauen aplikazioetarako dendetik doan jaitsi daitezke. Euskararen Telefonoa web orrian erregis-

traturik dauden erabiltzaileek, behin aplikazioa mugikorrean instalatuta, euren datuak sartu eta erabilgarri izango dute. Erabiltzaile berriek, berriz, instalatu eta erregistratu egin beharko dute erabiltzen hasteko.

www.akuilari.eus

Akuilari aplikazioaren informazio guztia.



Zure

osasun

asegurua

estaldura

hoberenekin

%

30

-eko deskontua

* Orain, osasun asegurua preziorik hoberenean.



MAPFRE

Tu aseguradora global de confianza

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354 · San Juan 48 · ALTSASU

jimazpr@mapfre.com



SAKANA

Amiantoarekin lan egin dutenendako deia

Gaur, 18:00etan, Altsasuko Gure Etxea eraikinean hitzaldia emanen du Jesus Uzkudun Illarramendi gaixotasun profesionalean aditua

“Sakanan, eta bazter guztietan, inongo babes neurririk gabe aritu ginen amiantoarekin lanean”. Jesus Uzkudun Illarramendiren hitzak dira. “Minbizia agertzea zigarroak erretzearekin tapatu dute askok. Baina lanean erabili dituzten produktuak dira gaitza sortu dutenak”, gaineratu digu.

Uzkudunek gaur Altsasun hitzaldia eman du. Amiantoa edo bestelako material arriskutsuekin lan egin zutenei hitzaldia joateko gonbitea luzatu die. “Inolako babes neurririk gabe lan egin genuen. Enpresek egindako kaltea aitortu eta kalte ordainak eman behar dituzte”. Horrela, prebentzioan lan egingen dutela esan digu.

Euskal Autonomia Elkartearen amiantoren biktimek Asviamie elkartearen sortu zuten. Haren bidez


hainbat enpresa epaiketara eramane dituzte eta langile ohien edo haien familiendako kalte ordainak lortu dituzte. Esaterako, irailean jakinarazi zuten Sunsundegui enpresako langile baten aldeko epaia. Uzkudunek esan digu sakan-dar gehiagoren kasuak daudela epaitegian. Asviamie elkartearen esperientzia kontatu eta Nafarroan halako elkarte bat sortzeko aukeraz ariko dira gaurkoan.



Goi tentsioko linearen kontrako mozioak udaletara

Espainiako Gobernuak argindarra garraiatzeko 2015-2020 arteko plangintza onartu zuen lastailean, Sakana barna pasatzen den Deikaztelu-Itsaso 400 kW-eko linea barne duela. Autopista Elektrikorik Ez plataformak jakinarazi du proiektuak ikutzen dituen 172 udalerrietan egitasmoaren kontrako mozioak aurkeztuko dituela, udalek proiektuaren kontra agertzeko aukera izan dezaten, 2013an egin zuen moduan.

Aldi berean, plataformatik Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari emandako hitza ez betetzea eta isilik egotea leporatu diete. Nafarroan gobernu osoatzeko akordioetan goi tentsioko linearen inguruko gogoeta egingen zela eta oraindik argindar linea proiektuaz “hitzerdirik ez esatea” leporatu zioten gobernuari eta hura eusten duten alderdiei.



Bestalde, Errusiako gasarekiko Europaren mendekotasuna murrizteko Europako Batzordeak “lehentasunezko” egitasmoen zerrenda aurkeztu zuen hilaren 18an. Haien artean dago Landak eta Nafarroa lotuko lituzkeen “autopista elektrikoa”, zeinak “Europa eta penintsularen arteko energia loturak hobetzea lukeen helburu”.

Altsasu

Inauteri batzordea Katalunian sustapen lanean

Aire irekian Katalunian egiten den sektore anitzeko azoka garrantzitsuena da Vilanova i la Geltru-koa. 240.000 pertsonak bisitatu zuten azaroaren 13a eta 15a bitartean. Azokako berritasuna inauteri-erakustokia izan zen eta han izan zen Altsasuko inauteri batzordea. Standean herriko ospakizunaren berri ematearekin batera Sakanako landa etxeen, natur ingurunea eta turismo baliabideen berri eman zuten. Azken hori, Bidelagun turismo elkarteak emandako 4.000 esku-orriri esker. Horretaz aparte, ibarreko ekoiz-

leen txistorra eta gazta dastatzeko eskaini zituzten.

Altsasuko inauteri batzordeko lau kide joan ziren Kataluniara (Maribel Mazkian, Joxepi Arakama, Pello Gomez eta Jose Angel Agirrebengoa), ostegunetik igandera. Standean maniki artikulatuetan momotxorroa, sorgina, maskarita eta akerra pertsonaiak jarri zituzten, baita Juan Tranposo bat ere. Azokaren sarreraren zeudenez, 9:00etatik 21:00etara etengabe bisitak izan zituzten altsasuarrek. Esan digunez, “behin eta berriz iho-tearen azalpenak eman genituen”.

MOTZEAN

Sei bakaikuarrek asteartean deklaratu dute

Espainiako Auzitegi Nazionalako Santiago Pedraz epaileak Bakaikuko alkatea, bi zinegotzi eta hiru herritar deklaratzera deitu ditu. Iruñeko Justizia Jauregitik eginendute, bideokonferentzia bidez, asteartean. Antza, festen testu inguruan euskal preso politiko eneskubideen aldeko ekimenen parte hartzeagatik” deitu ditu epaileak. Zitazioa salatu dute bai Bakaikuko EH Bilduk baita ehunetik gora herritarrek ere.

“Ekin auziak” badu data

Maiatzaren 17a eta garagarriaren 2a bitartean Espainiako Auzitegi Nazionalan bederatzi euskal herritar epaituko dituzte. Ekineko kide izateagotzen dieten horien artean dago Joxe Aldasoro etxarriarra. 2010eko irailean atxilotu zituzten pertsona horiek 9 eta 14 urteko espetxe zigor eskae-

rei aurre egin beharko diete. Auzipetuek adierazi dutenez, “Euskal Herriaren aldeko gure militantzia politikoa zigortzeko helburua besterik ez duen prozesua da hau, gure aurretik izandakoak eta, zoritxarrez, gurearen ondoren oraindik izanen diren jazarpen prozesuak”. Euren kontrako frogak “tortura bidez onartzeraderrigortutako inculpazioetan oinarrituta” daudela azpimarratu dute.

Amnistiaren aldeko manifestazioa Bilbon

Hainbat sakan-darrek, ibarreko eragile eta musika taldeak bat egin dute Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak Bilbon biharko, 18:00etan, deitu duten manifestazioarekin. Deitzaileek azaldu dutenez, “bizi dugun gatazka gainditzeko behin betiko irtenbide bakarra errepresaliatuen baldintzarik gabeko askatasuna eta herri zapalkuntzaren gainditzeko barnebiltzen duen amnistia integralaren gauzatzeta da”. +www.guaixe.eus

SAKANA

Sakandarrek EH Bilduren preso en etxeratzea eskatzeko baraualdian parte hartu dute

EH Bilduko 250 kidek baraualdia egin dute Bilboko La Casilla kiroldegian

larunbat eguerditik igande eguerdira. Haien artean zazpi sakandar izan ziren: Aitor Karasatorre, Karmele Maraño, Juanjo Goikoetxea, Fran Balda, Asun Fernandez de Garaialde, Juan Kruz Aldasoro eta Bixente Goikoetxea. Baraualdiak iraun zuen bitartean koalizioko kideek preso eta iheslariak etxeratzeko EH Bilduk proposatzen duen bide orriaren berri hainbat modutan zabaldu zuten: prentsarekin hartu-emanak, esku-orrien banaketa, jende katea, Etxerat Elkartearen ordezkariekin lan batzarra eta akaberako ekitaldia. +www.guaixe.eus

Altsasuarra EH Bilduren kongresurako zerrendan

Abenduaren 20an egingen diren hauteskunde orokorretan, EH Bilduren kongresurako hautagaitzan Zuriñe Goikoetxea Corres altsasuarra dago. Sabino Cuadra buru duen zerrendan laugarrena da Goikoetxea. Koalizioa Bildu erabakira leloarekin aurkeztuko da hauteskundeetara.

Extremara batzorde -burua

PPk Iruña iparraldeko eskualde batzordea aurkeztu zuen Donezteben larunbatean. Etxarri Aranatzeko zinegotzi den Juan Antonio Extremara da presidentea. Berarekin batera Amaia Zarranz (idazkaria) eta Hugo Martinez, Juan Areta, Nerea Valez eta Serafin Lopez (koordinatzaileak) daude. Aurkezpen ekitaldian Nafarroako PPko kudeaketa batzordeko presidente Pablo Zalba, senaturako hautagai Cristina Sanz eta Carlos Iturgaitz eurodiputatuak izan ziren.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

• Azaroaren 25a

• Irantzu Gonzalezen dantza eskola

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

Etxarri Aranatz / Sakana
Andra Mari ikastolakeraikin berriaren irekiera ekitaldia

Bihar, larunbata, 11:30ean Etxarri Aranatzko Utzubar txiki dermioan dagoen ikastetxe berriaren irekierarekin batera hura bisitatzeko aukera izanen da, auzatearekin bukatzeko.

Ikasturte hasieratik Andra Mari ikastolako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak Utzubar txikiko eraikin berrian ari dira ikasten. Ikasle eta irakasleek ikasturteko martxa hartuta dutela, Andra Mari ikastolako zuzendaritzak irekiera ekitaldia antolatu du biharko. Haren bidez, proiektuan parte hartu eta lagundu duten guztiei (gurasoak, ikasleak, langileak, herritarrek, eragileak, instituzioak, enpresak...) eskerrona adierazi nahi diete.

Andra Mari ikastolaren historian etapa berria da eraikin berria. Hezkuntza proiektua bajera batean abiarazi zutenen ilobak daude gaur egun ikastola berrian. Ikastolako zuzendaritzatik adierazi dutenez, eraikin berriak "haurren euskarazko kalitatezko heziketa eskaintzeko egindako ahalegina izanda, ikastolaren etorkizuna bermatzeko urrats bat". Gogorazi dute ikastola berria 2009an antolatu zen Nafarroa Oinez ospakizunaren bidez finantzatu zela. "Bertan milaka eta milaka euskal herritarrek jarritako aleei esker ere izan baita posible hein handi batean orduko ametsa egia bihurtzea". +www.guaixe.eus

>> Altsasu

Euskararen Egunak badu egitaraua

Abenduaren 3an, 11:00etatik aurrera izanen dira ekitaldiak

"Egunaren garrantziaz jabetuta", Euskararen Egunerako egitaraua antolatzeko, udaleko euskara zinegotziak deituta, azken asteetan herriko ikastetxeetako hainbat zuzendari, irakasle, guraso eta euskaltzale elkartu dira. Jakinarazi dutenez, aurtengoa abiapuntua da eta "urtetik urtera egunak indarra hartu eta Euskararen Eguna altsasuarrendako erreferentziala izan dadin nahi dugu".

Guztien izenean Haizea Ramirez de Alda zinegotziak adierazi duenez, "guretako egunero da euskararen eguna; euskarak 365 egun ditu. Abenduaren 3an, baina, indar handiagoz ospatu eta

Egitaraua

11:00etan Egunari euskararen aldeko martxa musikak alaiturik, Foru plazatik Zumalakarregiraino. Euskararen aldeko lelo bat gainean eraman, banderola, kartela, kamiseta... izan daiteke. Bukaera mezu horiek irakurtzeko aukera izanen da.

11:30ean Altsasuko bertso eskolako bertsolariak. Zumalakarregi plazan.

12:00etan Ekitaldi publikoa Iortia kultur guneko ezkaratzean. Adierazpen instituzionalaz aparte, hainbat herritarrek irakurketa publikoa egingen dute. Bukatzeko, talde argazkia egingen da.

17:00etan Haurrendako zinema: Dragon Ball Z: F berpiztua.

aldarrikatu nahi dugu gure herriko hizkuntzaren eguna". Antolatutako egitarauan altsasuarrak parte hartzera gonbidatu dituzte.



Euskararen Eguneko antolatzaileak aurkezpenean.

>> Irurtzun

Hemen dira Euskal Ekitaldiak



Abenduero Irurtzunen hutsik egiten ez duen kultur programazioa da Euskal Ekitaldiak. Aizpeak, Irurtzongo euskaltzaleen topaguneak, antolatzen ditu ekitaldi horiek; haietako asko irurtzundarren artean aski errotuak daude.

Euskal Ekitaldiekin Aizpeako kideek irurtzundarren euskara plazara atera nahi du, eta programatutako ekitaldiak euskaldunen bilgune bihurtzen direnez, Irurtzunen euskara erabiltzeko arnasgune bihurtzen dira.

Egitaraua

>> **Abenduak 3, osteguna**

17:00etan Amalur. Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Kiroldegian.

>> **Abenduak 5, larunbata.**

Euskarak 365 egun
10:00etatik 14:00etara Hamaiketako eta bideo grabazioa, karpan.
14:30ean Bazkaria eta herri kantak. Ondoren festa.

>> **Abenduak 8, asteartea**

10:00etan Donostiako zientzia museora

txangoa.

>> **Abenduak 12, larunbata**

20:00etan Kinadaren kontzertua, Pikuxarren.

>> **Abenduak 19, larunbata**

21:30ean Saioa Alkaiza eta Andoni Egañarekin bertso afaria, Iratxo elkartearen.

>> **Abenduak 25, ostirala**

19:00etan Euskarak 365 egun bideo emanaldia, Txitera elkartearen.

>> **Abenduak 27, igandea**

18:30ean eta 19:00etan Euskarak 365 egun bideo emanaldia, kultur etxean.



Hijos de Goikoetxea

948 467 317 • 696 979 279 • Geltoki auzoa 11 • ALTSASU
Hijosdegoikoetxea@yahoo.es








**Gogoratu, Katealde artisau produktuak eta klarisa mojen turroiak ditugula. Cava, champagne eta ardoetan merkatuan dagoen hoberena aurkituko duzu.*

*Aurtengo eskaintza:
Kalitate handiko produktuekin zure gabonetako opariak, loteak edo saskiak zuk zeuk egitea. Zatoz gure ardotezia ezagutzera!*



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



Martina Goñi Altuna

Zenaren familiak bihotzez eskertzen dizkizuegu bere heriotza dela eta, jaso ditugun maitasun adierazpenak eta doluminak. Berezi, Arbizuko mediku eta erizainak diren Miguel Ignacio eta Olatz, zuen profesionaltasun eta goxotasunagatik.

Familia



Martin Aldasoro, Martina Goñi eta zuen alaba, Anttoni

Hirurak elkarturik.
Memoria duenarendako, gogoratzea erraza da.
Bihotza duenarendako, ahaztea zaila da.
(Gabriel García Márquez)

Familia



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.eus



Odei Iturrioz Fernandez

V. urteurrena

Zure arnasak goxatzen gaitu zuhaitzetako hostoak astinduz, irrifartsu guri begira.
Bost urte pasa ondoren, gure ondoan zaudetenondako gure miresmena eta eskerrik beroena.

Rexu, Itziar eta Ihintza



Odei Iturrioz Fernandez

V. urteurrena

Biltoki tabernako lagunek eta lankideek ez zaitugu ahazten

Altsasun.



Borja Ondarra Ondarra

VIII. urteurrena

Lagun zintzo, lagun leiala eta indarrez betea, alaitasunez betetzen zuen inguruko jendartea. Akordeoia astinduz beti

festaren erdigunean zortea izan zen guretzako zu laguntzat izatea. Adio Borja, plazer handi bat izan zen zu ezagutzea.

Zure lagunak

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era edo hots egin

948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Erosi / saldu

SALDU

Eskuz egindako 1.500 teila arabiar. Ihabar. Tel 618 096 204

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatz. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

Higiezinak

ETXEAK

SALDU



Etxebizitza salgai. Abendu arte unifamiliarra Arbizon, 215.000 €. Erosketa eskubidedun alokairu kontratua aukeran: 3 urtez, 500 €/hila eta %10eko sarrera. 2007ko eraikina, 179m, 147 erabilgarri. Behean: portxea, egongela (sutondoa) eta sukaldea portxera, komuna, garajea. Goian: 4 gela, komuna, balkoia. Harremanetarako: 677 34 39 91 eta iongayro@gmail.com

Pisua salgai Arbizon. 3 gela, komuna, egongela beheko suarekin, estudio txiki bat. Bajera 40 m2 eta trastelekua 35 m2. 110.000 €. Tel 676 24 83 05.

Opatutakoak / galdutakoak

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Oharrak

Amalur Montessori Haur Eskola. Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua, beren ongizatea bermatzen duen proiektu euskalduna.

JAIOTZAK

- Ilargi Beloki Sanchez, azaroaren 9an Etxarri Aranatz.
- Suhar Arrizabalaga Garziandia, azaroaren 12an Etxarri Aranatz.
- Kimetz Beraza Martiarena, azaroaren 15ean Uharte Arakilen.
- Tasio Arbizu Aizpurua, azaroaren 18an Iturmendin.
- Adur Arbizu Martinez, azaroaren 19an Urdiainen.
- Julen Arretxe Luis, azaroaren 19an Lakuntzan.

HERIOTZAK

- Martina Goñi Altuna, azaroaren 18an Arbizon.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Harremanetarako 620 25 42 30 eta amalur@amalurelkarrea.org

Odol-emeleak. Altsasun, gaur, goizez.

Irurtzungo irakurle taldea. "La comedia humana" - William Saroyan. Abenduaren Sean.



GRUPO

Funeraria VASCONGADA

Ehorzketak

TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

PILOTA

BAKAIKOA LAU T´ERDIKO FINALERDIE-TARA: Joanes Bakaikoa pilotari etxarriarra Elite Mailako Lau t´erdiko finalerdieta-

rako sailkatu da, Aretan jokaturako final laurdenetan Elizalde 10 tantotan utzi eta gero.

kirola >>

Txirrindularitza

Burunda klubaren asanblada gaur

Gaur, ostiralean, 20:00etan, Iortia kultur gunean

Burunda Txirrindularitza Klubak urteko asanblada egingen du gaur, ostiralean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean. Denboraldiaren balantzea egiteaz aparte, kontuen egoera eta beste aztergai izango dituzte. Asanbladarekin 2015 denboraldiari amaiera emango zaio eta txirrindulariei denboraldi bukaerako trofeo banaketa egingen zaie, bestea beste.

Pilota



Iñigo Aritza Txapelketa: finalak jokoan

Igandean, 17:30ean, Altsasuko Burunda pilotalekuan

Iñigo Aritza Pilota Txapelketa erabakitze orduraino iritsi da. Euskal pilota sustatzeko asmoarekin antolatzen du Iñigo Aritza ikastolak aipatu txapelketa. Aurten 46 ikaslek hartu dute parte, hainbat kategoriatan. Aurreko asteburuan bigarren finalerdiak jokatu eta gero, igandean, 17:30etik final handiak jokatu dira, Burundan.

2. finalerdien emaitzak:

- LH3:** Ainhitze Armentia **3** – Hodei Ulaiair **18**
- LH4:** Patxi Azpeitia **18** – Alain Mendia **0**
- LH5:** Eneko Andueza **3** – Aimar Gracia **18**
- LH6:** Aritz San Roman **18** – Aimar Lezea **3**
- Lander Peral **18** – Arkaitz Agirretxe **2****
- DBH1:** Angel Vergara **18** – Unai Irigoien **13**
- DBH2:** Izadi Reparaz **18** – Aimar Garcia **5**

Finalak

- Igandean, 17:30ean, Burunda pilotalekuan**
- LH3:** Aimar Igoa – Hodei Ulaiair
- LH4:** Patxi Azpeitia – Oier Mitxelena
- LH5:** Aimar Gracia – Iker Agudelo
- LH6:** Aritz San Roman – Lander Peral
- DBH1:** Jokin Senar – Angel Vergara
- DBH2:** Izadi Reparaz – Oier Berastegi

Automobilismoa

Azkenean iritsi da garaipena: III. Olazti-Urbasa Rallysprinta Garikoitz Floresendako

Euriari eta hotzari aurre eginez, 44 autok hartu zuten parte Olaztikorallysprintean. Garikoitz Flores lakuntzarrak irabazi zuen proba

Euria, haizea, langarra eta hotza. Panorama hori zuten Sakana Motorsportek antolatutako III. Olazti-Urbasa Rallysprintean parte hartu zuten pilotu eta kopilotuek. Eguraldi horrekin zaletu gutxiago hurbildu ziren proba jarraitzera, baina pilotu eta kopilotuek erronka moduan hartu zuten egoera. “Uretako gurpilak jarri eta kitto. Ez dago arazorik” zioten.

Mitsubishien artean erabaki zen proba

Proba garaiz hasi zen, 14:00etan, eta, azkenean, 44 autok parte hartu zuten. Olaztikoprobak Nafarroako Pilotu eta Kopilotuen Rallye Txapelketarako eta Nafarroako Pilotu eta Kopilotu juniorren Rallye Txapelketarako puntuatzen zuen. “Eguraldi honekin Mitsubishien artean erabakiko da proba” esan zigun zaletu batek. Eta bete betean asmatu zuen. Antolakuntzak herriko kalexketan eta Altamiran barna antolatutako 5,5km-

Sakandarrak ongi



Parte hartu zuten 44 autoetatik 33k osatu zuten proba. 11 parte-hartzailek proba utzi behar izan zuten, Arkaitz Irigoien eta Juan Bidegain tartean (Renault R11 Turbo), lehen itzulian arazoak izan eta gero. Gainontzeko pilotu eta kopilotu sakandarrek lan polita egin zuten. Garikoitz Goñi eta Ricardo Garriz seigarrenak sailkatu ziren (Renault Megane, 17:22.700). Egoitz Coroso pilotu aguraindarrarekin aritu zen Iñaki Gastaminza bederatzigarrena sailkatu zen (Clio Sport, 17:42.300) eta Iban Lopez de Goikoetxea eta Javier Goikoetxea olaztiarrak hamabigarrenak izan ziren (Renault 5 GT Turbo, 17:56.240). Mikel Mendiñueta pilotu arbizuarra eta Joseba Berasategi hamalagarrenak sailkatu ziren (Peugeot 205 GTi, 18:10.300), eta Isaac Zurbano pilotuarekin aritu zen Iker Askargorta hamaseigarrena (Opel Kadett GSI, 18:13.700). Bukatzeko, Oier Larrañaga eta Eneko Aristu 26. postuan sailkatu ziren (AX GT, 18:54.900) eta Aitor Fernandez eta Eneriz Besga 29.ak (Volkswagen Golf, 19:27.000).

1.874 eta 1.101

III. Olazti-Urbasa Rallysprintean 2. Kaikuproduktu loteren zozketan saritutako zenbakia. Saridunak deitu 948 564 275-ra.

ko zirkuitu ederra lau aldiz osatu behar izan zuten. Eta hasieratik ikusi zen borroka estuena Garikoitz Flores-Iñaki San Migelek (Mitsubishi Lancer EVO VI) eta Joseba Beola-Jose Luis Iratzokik (Mitsubishi Lancer EVO VI) izango zutela. Lehendabiziko eta bigarren itzulian Flores eta San Migel gailendu ziren, eta bigarrenean eta laugarrenean, aldiz, Beola eta Iratzoki, baina lau itzulietako denborak gehituz txapela Garikoitz Flores lakuntzarrak eta Iñaki San Migelek jantzi zuten (16:31.300), Joseba Beolari eta Jose Luis Iratzokiri 2 segundo eskas aterata (16:33.200). Azkenaldi honetan ari tutako lasterketetan sarritan izan da podiumean Flores, baina Olaztin gorenera igotzeko aukera izan zuen. Iñaki Alegria eta Luis Zabala (Ford Escort Cosworth) igo ziren podiumeko hirugarren tokiara (16:46.000).

Pala

Txapeldunak: Murillo-Parot eta Aristorena-Ruiz



Emakumeen Nafarroako Pala Goma Txapelketako finalistak.

Nafarroako Pala Goma Txapelketan sakandarrak protagonista

Emakumezkoen Nafarroako Pala Goma Txapelketako finaletan maila bikaina erakutsi dute palista sakandarrek. 22 urtez azpiko finala Gure Pilotako bi bikok jokatu zuten, Eizagirre-Lasak eta Murillo-Parotek. 42 minutu iraun zituen partida bikainean, Murillok eta Parotek irabazi zuten, 22 eta 30. Hasieran parez pare aritu ziren bi bikoak, baina berehala Murillok eta Parotek bere jokoa ezarri zuten eta alde zabala hartu zuten, lortutako abantaila hori partida bukatzerara arte mantenduz.

Bestalde, senior mailako finalean, Oberenako Yanira Aristorena etxarriarrak eta Maite Ruiz de Larramendik txapela janztea lortu zuten, San Migel klubeko Munetari eta Larrioni 22 eta 30 irabazi eta gero. 50 minutu iraun zuen partidari Muneta ez zen eroso ibili, eta nahiz eta atzean Larrion ongi aritu, ez zuen lortu Ruiz de Larramendiri gailentzea. Horrela, Aristorenak aukera bikaina izan zuen bere jokoa egin eta dejada eta bi pareta ikusgarriek esker alde ateratzeko (15 eta 29). Muneta egoerari buelta ematen saiatu zen, baina azkenean Aristorena eta Ruiz de Larramendi 22 eta 30 gailendu ziren.

Irristaketa

Ioseba Fernandez, brontzezkoa Mundialetan



Taiwango Irristaketa Mundialeko 100 metro karriletan hirugarrena izan zen iturmendiarrak

Taiwango Irristaketa Abiadura Mundialean Ioseba Fernandez irristalari iturmendiarrak brontzeko domina lortu zuen 100 metro karriletan hirugarrena sailkatu eta gero (9.920 segundo). Urrea

Juan Carlos Perez kolonbiarrak lortu zuen (9.868 segundo), eta zilarra Jhon Guzman venezuelarrak (9.916 segundo).

400 metrotan zortzigarrena

Zirkuituari buelta bat emateko proban (400 m) Ioseba Fernandez 8.a sailkatu zen.

Futbola

Emakumezkoen Futbol Eguna

Bihar, larunbatean, 10:00etatik aurrera Altsasuko Dantzaleku futbol zelaian. Altsasu-Ardoi partidaren ondoren, Nafarroako Selekzioak Athletic Club izango du aurkari

Askokostata, azkenean aurten emakumezkoen futbol taldeasortzea lortu du Sociedad Deportiva Alsasua-Altsasu Kirol Elkarateak (SDA-AKE). AKEko futbol koordinatzaile Gorka Pascua da taldea entrenatzearen ardura duena, June Alzelai-rekin batera. 13 neskek osatzen dute taldea, guztiak Sakanakoak. “Taldea ateratzea kostatu zaigu baina lortu dugu. Liga hasi baino lehen jokotutako partidarik ez dugu galdu. Oso kontentu gaude” adierazi zigun Gorka Pascuak denboraldia hasi baino lehen.

Baina hasi da denboraldia. Emakumezkoen Futbol 8 mailan lehiatzen ari da Altsasu. Guztira 22 talde dira, 3 multzotan banatuta. Lehen multzoan dabil Altsasu, Beti Kozkor, Ardoi, Itaroa Huarte A, Oberena eta Gazte Berriak taldeekin batera. Egun Gazte Berriak da liderra (11 puntu), puntu batera Itaroa Huarte A eta bi puntura Altsasu dituela.

Altsasu-Ardoi eta Nafarroako selekzioa-Athletic Club
Emakumezkoen futbola sustatzen jarraitzeko bideari jarraituz, bihar, larunbatean, azaroaren 28an, AKEk Emakumezkoen Futbol



Emakumezkoen Futbol 8 mailako taldeko Altsasu taldea.

Eguna ospatuko du. Eguna goizeko 10:00etan hasiko da, Emakumeen Futbol 8 mailako 7. jardunaldi-ko partida jokatu baita. Altsasuk Ardoi taldea izango du aurkari. Ondoren, goi mailako futbol partida batez gozatzeko aukera izango da. Nafarroako 16 urtez azpiko emakumezkoen selekzioa Athletic B taldearen kontra ariko da, lagunarteko partidari. Talde horretan lehen mailan jokatzen duen jokalariren bat ere badago. “Horrela, goi mailako partida bat

ikusteaz aparte, gure jokalariek jokalaria handiak direnengatik ikasteko aukera izango dute” gaineratu du Pascuak. Partida berezia izango denez, herri guztia gonbidatu dute emakumeen futbol egunaz gozatzera. “Herriar guztiak egun horretan goza dezaten nahi dugu. Horregatik, guztio gonbidatu nahi zaituztegu partidetara bertaratzeko, gure benetako asmoa emakumezkoen futbola gure herrian eta gure ibarrean sustatzea baita” nabarmendu du Pascuak.

Botxa

Irurtzungo hiru bikote Nafarroako Txapelketan

Azaroaren 14an hasi zen Nafarroako Botxa Txapelketa. Guztira 19 bikote ari dira parte hartzen, bi multzotan banatuta. Tartean daude Irurtzungo hiru talde: Irurtzungo gazteak –Iñigo Carballo, Guillermo Juango eta Xabier Agustino–, Irurtzun –Txeli Garcia, Tere Yeregi eta Juanito Maestre– eta Irurtzun 3 –Txutxurrin, Mikel Ollo eta Alejandro Jordano–. Irurtzun 3 taldea A mailan lehiatzen ari da eta Irurtzungo gazteak eta Irurtzun B multzoan.

Txapelketa martxoan despiditu-

ko da. Otsailaren 21era arte hasierako ligaxka jokatu da, Otsailaren 27an eta 28an final laurdenak, martxoaren 5ean finalerdia eta martxoaren 12an final handiak. Botxa petanka antzeko jokotradizionala da. Irurtzunen zale asko ditu eta Iratxo elkarteko botxategian jokatzen dira partidak. Iratxotik adierazi dutenez, botxak berpizten ari dira Iruñerrian. Orain dela gutxi Berriozarren botxategi berri bat egin dute eta jende berria ari da botxan jolasten.



Nafarroakon lehiatzen ari diren irurtzundarrak eta ordezkariak.

Kiroldegia

Zelandi kiroldegia 25 urte bete ditu



CBASK taldekoak saskibaloia partidan batetan, Zelandin. ARTXIBOA

1990ko azaroaren 23an mustu zen Altsasuko Zelandi kiroldegia
Zelandi kiroldegia 25 urte bete ditu. 1990ko azaroaren 23an mustu zen, 17:00etan, Altsasuko alkate Emilio Boulandier, Kirol Kontseilu Nagusiko zuzendari orokor Tomas Alberdi eta Nafarroako Gobernu Hezkuntza, Kultura eta Kirol kontseilari Roman Felones bertan zirela. Mustutze ekitaldia “*Enganchate al deporte*” lelopean Sakanan eta Altsasun antolatutako jardunaldien barruan kokatu zen. Agintarien ekitaldiaren ondoren, gazte mailako emakumezkoen mailako partida jokatu zuten Altsasu Arfek eta San Jor-

Pala

12 bikote I. Gure Pilota Pala Torneoan

Emakumeen txapelketa abenduaren 6an hasiko da

Nafarroako Pilota Federazioak, Sakanako Mankomunitatearen, Gure Pilota taldearen eta Arbizuko eta Etxarri Aranazko Udalen laguntzarekin emakumeendako I. Gure Pilota Sakanako Pala Torneo antolatu du. Abenduaren 6tik aurrera jokatuko da, elite mailan eta promozio mailan. Antolatzaileek sari politik izanen direla adierazi dute. Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak esan digunez, Nafarroako Pilota Federazioak, Mank-ek eta Gure Pilota klubak indarrak batu dituzte, helburua “txapelketa indartsu bat antolatzea” delako, “hurrengo urteko pala egutegian Euskal Herri mailan tokia izango duena”.

LEHIATUKO DIREN PALISTAK
12 bikote arituko dira. Elite mailan, Maite Ruiz de Larramendi, Ariane Arrieta, Maider Huizi, Maddi Mendizabal, Leire Etxaniz eta Claire Bordagarai atzelariak eta Susana Muneta, Yanira Aristorena, Amaia Irazustabarrena, Amaia Araiztegi, Ainhoa Garmendia eta Nagore Martin aurrelariak. Promozio mailan, aldiz, Edurne Argain, Aitziber Ardanaz, Irati Lasa, Izar Parot, Anne Maiza eta Leire Gabirondo atzelariak eta Uxue Murillo, Irati Igoa, Miren Goikoetxea, Irati Otaegi, Ane Itsasmendi eta Olatz Agirrezabala aurrelariak.

Futbola
PREFERENTE MAILA. 1. multzoa
11. JARDUNALDIA
ETXARRI ARANATZ 1 - LAGUN ARTEA 2 Lakuntzako Zelai Berri zelaian jokotutako preferente mailako derbi sakandarrean, Lagun Arteak aukera gehiago izan zituen eta ez zuen galtzea merezi izan, baina Etxarrik kontrako atean hobeto asmatu zuen eta 3 puntuak eraman zituen. Lehen zatian gol aukera argiak huts egin zituen Lagun Arteak, eta Etxarrik Lagunen atera iritsitako lehen aldian sartu zuen gola (Pablo, 34. minutuan). Bigarren zatian Sanbari esker berdintzea lortu zuten lakuntzarrek. Lagun Arteak gora egin zuen, eta aukerak izan zituen, baina atzera ere Etxarri izan zen aurreratu zena. Aitorrek sartutako golari esker. Lakuntzarrek saiatu ziren baina Etxarrik eraman zituen hiru puntuak, lidergoa sendotuz.
Sailkapena >>
1. Etxarri Aranatz24 p 8. Lagun Artea16 p
Asteburuko jardunaldia
ETXARRI ARANATZ - AURRERA (Igandean, 12:00etan, Etxarri Aranatzen) AIBARES - LAGUN ARTEA (Larunbatean, 15:30ean, Oibarren)
ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa
11. JARDUNALDIA
AMIGO 3 - ALTSASU 0 Futbol zelaiaaren egoera izan zen protagonistetako bat, euriarengatik egoera kaxkarrean baitzegoen. Askok nabaritu zen hori. Lehen zatian Amigok aukera gehiago izan zituen. Aldiz, Altsasu apenas gerturatu zen Amigoren atera. Bigarren zatian Amigok gehiago dominatu zuen. Penalti bati esker aurreratu zen Amigo, eta hortik aurrera jokoaren intentsitatea mantendu eta beste bi gol sartu zituen. Altsasuarrek punturik gabe itzuli ziren.
Sailkapena >>
1. Lezakairu33 p 12. Altsasu9 p
Asteburuko jardunaldia
ALTSASU - DONEZTEBE (Larunbatean, 15:45ean, Dantzalekun)



Futbola

Kimuen Futbol 8 Topaketak

6. jardunaldia jokatu da igandean Altsasun

Sakanako Mankomunitateak antolatutako Kimuen Futbol 8 Topaketen 6. jardunaldia jokatu da igandean goizean Altsasun. Aurten Sakanako 9 talde ari dira lehiatzen. Topaketa txapelketa moduan jokatu da, baina ez da sailkapenik egingo, helburua txikiengan kirola eta futbola sustatzea baita. Guztiek ongi pasatzea eta txikiengan futbolarekin gozatzeko asmoa.

Kimuen Futbol 8 Topaketen 6. jardunaldia
Igandean, Altsasun
11:00etan Mediolanum - Lagun Artea
11:00etan Kaixo - Urdiain
12:00etan Etxarri - Sutegi
12:00etan Dantzaleku - Sayas
Atsedena: Tipi Tapa

Atletismoa

Altsasuko Barricarte herri lasterketak erabakiko du Sakanako Kopa

Ohikoa denez, abenduaren 8an jokatu da Zubeztia elkartek prestatutako 35. Oinezko lasterketa edo 32. Alberto Barricarte memoriale.

Altsasuko Zubeztia elkartek Altsasuko Udalaren laguntzarekin antolatutako Herri Lasterketak 35. edizioa beteko du aurten, eta 32. urtea izango da aipatu lasterketak Alberto Barricarte memoriale izena hartu zuela. Proba herrikoi hori, ohi denez, abenduaren 8an jokatu da, Ama Birjinaren egunean. Aurten asteartearekin, 11:30ean. Festa eguna da, eta korrikalariendako zita garrantzitsua da, San Silvestrearekin batera urteko azken hitzordua izaten baita. Aurreko urtean 216 korrikalarik hartu zuten parte proban, eta Antonio Etxeberriak (40:52) eta Elena Calvilok (50:22) irabazi zuten. Guztira 52 sakandar aritu ziren eta Javi Moreno (42:43) eta Izaskun Beunza (51:11) izan ziren azkarrak.

12,4 km
Antolakuntzak parte hartze polita espero du. Ez dago aldaketa nabarmenik eta herrian barna antolatutako zirkuituari lau buelta eman beharko dizkiote korrikalariak, guztira 12,4 km. Goizeko 11:30ean abiatuko da lasterketa,



Argazki oina.

Zubeztia elkartearen albotik. Foruen Plazatik, eta Ferial eta Lapurbide kaleetatik barna Larrainbidera helduko dira korrikalariak, Zubeztia kalea pasatu eta gero Zelai kalea igotzeko. Zelai kaleko goialdean buelta hartu eta Isidoro Melerorantz joko dute lasterkariek, Araba eta Idartzagain kaleetatik Auzobidera heltzeko, eta handik Alzania kalea hartzeko. Alzania kaletik San Juanera iritsiko dira korrikalariak eta bertatik Zubeztia elkartera joko dute, udaletxe aurrera, hura izango baita helmuga. Aipatu zirkuituari

lau buelta eman eta gero despedituko da proba.

Izena ematea egunean bertan
Izena ematea dohainik da. Aurretik www.dantzalekusakana.com web gunean egin daiteke edo egunean bertan, lasterketa baino lehen, 10:00etatik 11:30era, Gure Etxean. Bi kategorია izanen dira: 18 eta 39 urte arteko emakumeak eta gizonak, eta 40 urtetik gorako emakumeak eta gizonak. Bukieran Zubeztia elkartek hartuko du sari ematea, eta bildutako guztiendako auzate ederra izanen da.

Gainera, sariak zozketatuko dira.

Sakanako atletismo kopako azken lasterketa
Lasterketa honekin Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariari bukaera emango zaio. Orain arte lau proba jokatu, gizonetako Sergio Garcia de Eulate da lehena eta Raul Audikana eta Iban Gonzalez hurrenak, puntutara berdinduta. Emakumetako Izaskun Beunza da lehena, Ginesa Lopez eta Maite Zabaletaren aurretik. Barricartek erabakiko du dena.

Areto futbola



Xota ikusgarria

Larunbatean 10 eta 3 irabazi zion C. Santa Colomari eta asteartean UMA Antequerari 0 eta 2 gailendu zitzaion

Larunbatean gol festa ederra ospatu zuen Magna Gurpea Xotak Anaitasunan. C. Santa Coloma arerio zuzenaren kontra bikain aritu zen Irurtzungo taldea. Xotak ederki estutu zuen, abiadura handia eman zion pilotari, partidaren erritmoari eutsi zion eta kontrako atean asmatu zuen. Bukieran, 10 eta 3 gailendu ziren berdeak (Jesulito (4), Victor (2), Saldise, Ibarra, Araça eta Roberto Martil). “Guztia ongi ateratzaigu eta taldeak partida bikaina egin du” adierazi zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

HIRUGARRENAK LIGAN

Asteartean, ligako hurrengo partidajokatu zuen Magna Gurpeak, UMA Antequeraren kontra. Partida oso serioa eginez, beste garaipen bat pilatu zuten nafarrek. Lehen zatian ez zen golik egon. Bigarren zatian, Magnako Asier Llamas atezainak Antequeraren gol jokaldi ikaragarria gelditu ondoren, Magna Gurpearen lehen gola sartu zuen Jesulitok. Partida bukatzeko 7 minuturen faltan Carlitosek bigarren ekipazioarekin urdinez jokatu zuen talde berdearen bigarren gola sartu zuen. Egindako lanarekin kontentu geratu ziren Imanol Arregiren mutilak.

BIHAR, JAEN

Sailkapen orokorrean Inter Movistar da liderra (34 puntu), Bartzelonari 3 puntu aterata. Magna Gurpea Xota hirugarrenada (23 puntu). Bihar, larunbatean Magna Gurpea Xotak 11 punturekin 12. postuan dagoen Jaen Paraiso Interior taldea hartuko du, 18:30ean, Anaitasunan.

ONDOREN DERBIA

Abenduaren 5ean, bi talde nafarren arteko derbia jokatu da Anaitasunan. Magna Gurpeak Aspil Vidal Ribera Navarra izango du aurkari.

Pilota



Ikaspilota arrakastatsua

Nafarroako ikastolek 50 urte bete dituztela ospatzeko antolatutako

ekitaldien barruan, larunbat goizean Ikaspilota Eguna hartu zuen

Etxarri Aranazko pilotalekuak. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mai-

lako makina bat neska-mutilek parte hartu zuten egunean.

Diploma eta kamisetak
Ikastolen Ikaspilota modelo parte-hartzaileari jarraikiz, Etxarriko frontoian txoko ezberdinak prestatu ziren, bakoitzean pilota joko ezberdin batean aritzeko, eta ikasle guztiek, taldeetan banatuta, txoko batetik bestera pasatu ziren, guztietan arituz. Bukaeran, guztiek diploma eta kamiseta jaso zuten Ioseba Ezkurdia pilotariaren eskuetatik eta Arbizuko aurrelariak berak sinatutako pilota bat zozketatu zuen guztien artean. Pilota sustatuz eta pilotarekin disfrutatuz, egun bikaina pasa zuten guztiek.



Abenduak
18
OSTIRALA

Album ilustratu bat sortzeko tailerra

17:00 -19:00 IORTIA Kultur Gunea
6-10 urte bitarteko haurrendako (LH1-4)

Tailerqileak
Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonso

Izen-ematea
Iortia kultur gunean hilaren 11ra arte
948 564 255 iortia@altsasu.net

ANTOLATZAILEA: **Mank** LAGUNTZAILEA: 

kultura >>

NAFARROAREN EGUNEKO KONTZERTUAK, 13:00etan:
Irurtzongo elizan Elkhos taldea; Bakaikuko elizan
Etxarriko abesbatza; Altsasuko Iortian Erkudengo
ama eta Olaztiko kultur etxean Gaztelu taldea.

Sakandarrak Bertso-truk



Gaur, 22:00etan, Etxarri Aranzako Leku Ona tabernan Sakanako helduen bertso eskolakoak Mungia-Larrabetzu-koekin ariko dira

Euskal Herriko helduen bertso-
eskolen arteko harremanak
sustatu asmoz antolatu da Ber-
tsotruk egitasmoa. 26 bertso-esko-
lek eman dute parte hartzeko ize-
na eta haien artean dago Sakanako-
koa. 26 bertso-eskolak 9 multzotan
banatu dituzte eta Mungia/Larra-
betzu eta Oñatiko bertso eskole-
kin dago Sakanakoa.

Bertso-eskola bakoitzak bere
multzoko beste biak hartuko ditu
etxean, eta beste bi herrietako ber-
tso-eskolek antolatutako ekitaldie-
tara joanen da. Emanaldia edozein
motatakoa izan daiteke: bertso-saio
formala, bertso-bazkaria, bertso-
antzerkia, bertso-jolasen bat...

Eroetxe batean bizi den protagonista

Erkuden Ruiz Barroso

Larunbatean, 20:00etan, Iortia
Kultur Gunean Sardo Irisarri
aktorea Amador izango da *Un loco
de desatar* antzezlanean. Amador
eroetxe batean bizi da. Urte luzez
bertan bizi ondoren kalera atera
behar da eta ez du nahi bertan
ezberdin sentitu delako. Amado-
rrek libre izan nahi du, baina libre
hipokresiarik gabe. Oholtza gai-
nean hamar pertsona egonen dira,
pertsona bakar batean.

Buruko gaitzen inguruko jar-
dunaldien barne gai honi buruzko
antzerkia antolatu du Altsasu, Olaz-
tietia Ziordiko oinarritzko gizarte zer-
bitzuen mankomunitateak. Elikai-
gai Bankurako elikagai ezgalkorren
truke lortu daitezke sarrerak Ior-
tia Kultur Gunean. Jardunaldia
atzo egin zen *Ez da eroen kontua,
guztiona baizik* mahai-inguruare-
kin osatu zen. +www.guaixe.eus



bazterretik

Aritz Viñas

Juanito Makandé

Gaurkoan artista honetaz hitz egin-
go dut. El Canijorekin edo Chico Oca-
ñarekin jo duen perkusionista dugu
Juanito Makandé.

Flamenko musika jazz edo funk
musikarekin nahastu egiten ditu
artista honek. Bere hitzetan, txiki-
tan Camaronen *“Como el agua”*
abestia entzun zuenean sortu
zitzaion musika jotzeko grina.
Horrela, gitarra baterosi egin zuen
eta musikari ekin zion; ondoren
kajoia hartu eta horrekin jarraitu
zuen.

Flamenko musika funk eta jazz
musikarekin nahasten ditu horre-
la sentimenduak entzuleari erra-
zago transmititzeko asmoarekin.
Bere disko propioak sortzen hasi
aurretik hainbat talderekin jotzen
egon zen. Bere lehengusuarekin
Radio Makandé duoa sortu zuten,
baina honekin hainbat urte pasa
ondoren proiektua alde batera utzi
zuten. Trece edo Banda Formal

taldeekin lanean jarraitu zuen.
Hauetaz aparte ere beste auto-
reekin kontzertuak ematen jarrai-
tu zuen, beti ere perkusioa jotzen.
Bere diskoak ateratzeko ordua
heldu zitzaion orduan 2006an.
Nahiz eta diskoetxe batzuk auto-
re honetan interesa izan, honek
ezezkoa eman zien guztiei eta
bere kabuz diskoak ateratzen
hasi egin zen. Bere ustez musi-
kak zerbait naturala izan beha-
rra dauka, horregatik ez du dis-
kografia baten barnean egon
nahi, ez du uste beste norbaitek
esaten diona egin behar duela
bere diskoa argitaratuko duela-
ko bakarrik.

Esan bezala, 2006an bere lehe-
nengo diskoa atera zuen *“Sueña”*.
Disko honek presentzia handia
eman zion bere inguruko musika-
rien artean, eta urte horretan hasi
egin zen musikari berri eta inte-
resgarriak ezagutzen.

2008an bere bigarren diskoa gra-
batu zuen, *“Momentos de alimen-
to”*, baina ez zuen 2011ra arte argi-
taratu. Dena prest zeukan baina hiru
urte itxaron zituen jasotako eskaini-
tzak egokiak ez zirelakoan.

Hiru urte horietan beste proiektu
batzuetan lanean hasi zen, *“The
mencial project”* eta *“Trece”* talde-
ekin jotzen egon zen, eta honetaz
aparte Chico Ocañarekin ere jotzen
egon zen eta El Canijori ere lagun-
du egin zion bere diskoaren gra-
baketan.

2014an bere hirugarren diskoa argi-
taratu zuen, *“Las canciones que
escribí mientras volaba”* izenekoa.
Disko hau crowdfunding-arekin
ordaindu zuen, berriz ere bere
kabuz kaleratu nahi zituelako dis-
koak, diskografiak erdian sartu
gabe.

Bukatzeko, 2015ean *“Muerte a los
pajaros negros”* diskoa argitaratu
zuen.

Gehiago ez luzatzeagatik musika-
ri hau entzutea gomendatzen dizuet,
oso interesgarria eta ona iruditzen
zait niri behintzat.

GARRAIOLARI TITULUA

2016ko IKASTAROA

Emitza bikainak:

2010 %72

2011 %81

2012 %87

2013 %71

2014 %92

**Errekorra 2015ean
% 100ak gainditu zuen**

**Ez baduzu
gainditzen
2. ikastaroa
doan**

**ON-LINE
EDO
PRESENTZIALA**



INFORMA ZAITEZ

948 26 13 15 Bulego orduetan

680 11 06 51 Migeltxo

Nafarroan eta Gipuzkoan



Etxarri Aranatz Sakanako kulturaren herria

Erkuden Ruiz Barroso

Dantza, antzerkia, clowna, musika, zinema... Diziplina artistikoezberdinak baina ezaugarri komun bat dute: Sakanan egindakoak dira. Sakanako artistak Etxarrin bilduko dira Agertokiye Sakanako artearen agertokia zikloan. Bertako artistak ezagutaraztea eta aberastasun artistikoa azaleratzea da ekimen berri horren helburua.

Kultur arloan jarduten duten pertsonak Sakanan gero eta gehiago dira: antzerkia, musika, dantza, zinema... diziplina artistiko ezberdinetan aritzen dira sakandarrak. Etxarri Aranatzko kultura sailak guztiak bildu nahi izan ditu Agertokiye artisten zikloan. Etxarri Aranatzko kultur etxea sakandar artisten erakusleho izanen da.

Irurtzun, Ihabar, Irañeta, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz eta Altsasuko artistak izanen dira Etxarrin; guztira 33 sakandarrak parte



hartuko dute hamaika emanalditan. Sakanan egiten den artea eta sakandarren eginkizuna erakutsi ez ezik etxarriarrak kultur jardueretan parte hartzea sustatu nahi du kultura sailak. Sakanako artis-

ten lanak erakustea "pizgarria" izatea nahi dute. Zikloa asteartean hasi zen *Futbolariak eta printzesak* antzerki lanarekin, Kultura saila Parekidetasun Batzordearekin elkarlanean antolatuta. Antzer-

Egitaraua

>> Azaroak 28, larunbata.
20:30ean *Sustraiak* dantza ikuskizuna. Dantzarima (Altsasu). Sarrera: 3 €.

>> Abenduak 12, larunbata.
17:30ean *Tren geltokia*. Antzerki-zirkus ikuskizuna. Sarrera: 3 €. Zirika Zirkus taldea (Irañeta).

>> Abenduak 26, larunbata.
20:30ean *Punto y seguido*. Iñaki Azumendiren (Etxarri) kontzertua. Sarrera: 3 €. Musikariak: Juanmi Arzelus (Arbizu), Julia Morales eta Ana Turcan.

>> Ilbeltzak 2, larunbata.
19:00etan *Ekoetikopatetiko*. Atea teatroa. Sarrera: 6 €. Aktoreak Anabel Arraiza (Lakuntza) eta Jabi Rodil.

>> Ilbeltzak 3, igandea.
19:00etan *Una noche*. Zinema. Ondoren, filmeko produktore Maite Artiedarekin

(Etxarri) hitzaldia. Sarrera: 2 €.

>> Ilbeltzak 16, larunbata.
17:30ean *Pluton: Hor konpon Marianon*. Familiarteko antzerki ikuskizuna. Axolote Antzerki Trup. Sarrera: 3 €. Idazlea eta aktorea: Zoila Berastegi (Arbizu). Beste aktoreak: Oier Zufiiga, Maria Zapata eta Juanan Oiarzun.

>> Ilbeltzak 23, larunbata.
19:00etan *Amico*. Antzezlan. Bubamara Dance theater. Sarrera: 6 €. Aktoreak: Jon Barbarin (Ihabar) eta Txori Garcia Uriz.

>> Ilbeltzak 30, larunbata.
19:00etan Mikro-antzerkiak. *Nirea zurea da*. Aktorea: Lorea Arangoa (Irurtzun). *Vladimir eta Nikavko*. Aktorea: Xabier Artieda (Etxarri). Sarrera: 6 €.

>> Otsailak 19, ostirala
22:00etan Etxarriko musikarien kontzertua (12 musikari). Sarrera: 3 €.

ki lan hori Lehen Hezkuntzako Etxarriko ikastetxeetako ikasleei zuzenduta dago.

Sarrerak kultura bulegoan edo Internet bidez (www.etxarriaranatz.eus) lortu daitezke. Gainera,

haurrendako eta gazte eta helduendako bi abonuprestatu dituzte. Haurrek sei euroren truke eta gazte eta helduek hamabi eurogatik hiru ikuskizunetarako sarre-
rak izanen dituzte. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Rock jaialdia Altsasuko gaztetxean

La Viuda Negra eta Nekez gaur, 23:00etan Altsasuko gaztetxean



La Viuda Negrako jatorrizko taldeko hiru kide arituko dira gaur: Christel Teruel (ahotsa, koroak eta gitarra), Puri Alzelai (baxua eta koroak) eta Eva Fernandez (bateria, perkusioa eta koroak). Laugarrena Janis S. Ortiz de Zarate (gitarra) kanpoan bizi da eta David tuterarrak ordezkatzeko du. Alzelaik esan digunez, taldearen izen bereko diskoa (Clan Records, 1998) errepasatuko dute eta bestekantubatzuk ere joko dituzte. Rock kaletarra.

Nekez, Iruñerriko laukoteak Altsasuko Itxura estudioetan grabatu zuen bere bigarren diskoa, *Lokatzetako Igela*. Musikan "bide gogorrago eta metaleroago bat" bilatu zuten eta hori da gaur Altsasun aurkeztuko dutena.

[+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Txantreako eta Orioko abesbatzen bisitak

Larunbatean, 19:00etan, Hiriberriko elizan txantrearrak eta igandean, 12:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean oriotarrak

Ara kilgo udazkeneko kultur agendak biharko eguna musikari, kantuari, eskaini dio. Hasteko eta behin, Iruñeko Txantrea auzoko Arturo Kanpion abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan. Arturo Kanpion Emanaldiaren ondoren, 22:00etan, Hiriberriko Txitera elkartean 35 arakildar afaltzera eta kantatzera elkartuko dira. Kanturako doinuak Edorrek jarriko ditu. Afarian bertan Arakilgo udazkeneko argazki lehiaketako sariak banatuko dira.

Etzi, berriz, Salatxo abesbatzak euskal folkloze eta zarzuelen zatien osatutako errepertorioa ekarriko du Altsasura. Igor Arroyo zuzendariak hainbat adinetako abeslariak zuzentzen ditu.



Iruñeko Orfeoioak Lorenzo Ondarraren obra baten zatia mustuko du

Lorenzo Ondarra bakaikuarrak *Set cançons populars Catalanes* harmonizatu zituen. Orfeo Catalak 1964an antolatutako lehiaketa lan horrekin irabazi zuen Ondarrak. Haietako lau Orfeo Catalak mustu zituen 1968an. Gelditzen diren hiruak igandean mustuko ditu Iruñeko Orfeoioak. Bartzelonako Palau de la Musica Catalanan. Hiru piezak horiek heldu den ostegunean, abenduaren 3an, entzuteko aukera ere izanen da, Iruñeko Orfeoioak Iruñeko Baluarte auditorioan eskainiko duen kontzertuan.



Ametsetako dantza eskola

Irantzu Gonzalez Azpirozek dantza eskola mustu du Altsasun
Erkuden Ruiz Barroso

Umetatik amets bat izan du Irantzu Gonzalez Azpiroz dantzariak: Altsasun dantza eskola bat egitea. Larunbatean ametsa errealitate bihurtu eta dantza eskola mustu zuen. Umeak zein helduak dantzan trebatzea eta, bereziki, dantzarekin disfrutatzea nahi du Gonzalezek. Dantzariak izan nahi badute aukerak izatea.

Madriren dantza eta interpretazioa ikasi ondoren Altsasura itzuli da. Dantza garaikidea, kontemporanea, balet klasikoa, flamenkoa Askoa Etxebarrieta "La Pulga"-rekin... denetarik landu du. Dantzarimak, Gonzalezen dantza konpainia ere han izan zen.

[+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Hurrengo literatura hitzorduak

Lau literatura hitzordu ditu irakurtzea maite duenak. Aurrena Ibon Martin idazlearekin izanen da. *La fábrica de sombras* liburu argitaratu berria aurkezteko etorriko da abenduaren lehen asteartean, 19:00etan Altsasuko Haritza tabernara. Han bertan jaso daitezke aurkezpenerako gonbitak.

Irurtzungo irakurle taldeak, berriz, abenduaren 5erako jarri du hitzordua. William Saroyan idazlearen *La comedia humana* liburuak sortutako inpresioez hizketatuko dira larunbat horretan, 18:00etan, Irurtzungo liburutegian. Bestetik, Etxarri Aranatzko irakurle taldeak abenduaren 10ean elkartzeko asmoa du. Literaturatik gutxi eta errealitatetik asko duen Joserra Senar kazetariaren *Can: hemen ez da ezer gertatu* liburuaren gainean ariko dira. Ohi bezala, 19:00etan Etxarriko liburutegian.

Mari Romero Fernandezek abenduaren 10ean Altsasuko Iortia kultur gunean *La casa de la buhardilla* liburu aurkeztuko du. (Ikus gehigarriko 5. orria).

www.durangokoazoka.eus

50. DA!

DURANGOKO AZOKA
abenduaren 4tik 8ra

ANTOLATZALEA

50. DA!

BABESLE NAGUSIAK

BABESLE PUBLIKOAK

BABESLE PRIVATUAK

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 85%	euria: 83%	euria: 15%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 10%	euria: 13%
Min: 7 Max: 10	Min: 7 Max: 8	Min: 2 Max: 11	Min: 2 Max: 14	Min: 4 Max: 13	Min: 3 Max: 13	Min: 4 Max: 13

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	19	0	161.2
Etxarri A.	20	-1.3	135.9
Altsasu	17.5	-1.5	116.5
Aralar	12.1	-6.2	138.2
Urbasa	15	-2	89.4

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
3	11	18	25

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com
ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

AZAROKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri kobazuloetarako sarrera, Artazako kanpinera-ko deskontua, Lacturale lotea, Artiumerako sarrerak, Gaztezulo aldizkarirako harpidetza eta Magna Gurpearako bi sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako kanpinera-ko deskontua, Lacturale lotea, Artiumerako sarrerak, Gaztezulo aldizkarirako harpidetza eta Magna Gurpearako bi sarrera.

>> 11 galdera

Javi Lizarraga, Igor Artieda, Mikeldi Diez eta Zuzene Erro
Sakanako Mirentxin gidariak

Testua: Erkuden Ruiz Barroso

- 1.- Zer da Mirentxin Gidariak?**
Presoen senideak bisitak egitera eraman ahal izateko sortu ziren taldeak. Senide guztiek ez dituzte bidaia egiteko aukera berdinak. Irtenbidea emateko sortu zen orain dela 35 bat urte Bilbon.
- 2.- Nola sortu zen?**
Bilboko mutiko batek bere koadri- la Algecirasera eramaten zuen eta senide askok bizi zuten errealitate ikusi zuen. Horrela, lehenengotaldeak sortu zen eta beharraz gogenez taldea handituz joan zen.
- 3.- Nola iritsi zen Sakanara?**
Mikeldi hasi zen duela urte batzuk. Bilboko lagun baten senideak Mirentxin hasi ziren eta bidaia egiteko proposatu zioten. Hasieran inguruko jendearekin harremanetan jarri zen. Gero Gasteizko taldearekin elkartzeko hasi ginen eta haiek proposatu ziguten Nafarroan talde bat sortzea. Beraiek furgonetak utziko zizkiguten eta horrela sortu ginen Nafarroako taldea.

- 4.- Zenbat gidari zarete Sakanan?**
Sakanan hogeitaz gidoi inguru izango gara; batez ere Etxarri, Arbizu, Altsasu eta Olaztikoak. Gurekin Leitzako gidariak egiten dituzte bidaia ere.
- 5.- Nola antolatzen zarete?**
Sakanako taldeak sei hilabeteko furgoneta dauka. Egutegi bat osatzen dugu. Asteburuero bigidari jartzen ditugu eta beste bikote bat erreserbangelditzen da. Etxeratik Mirentxingo talde bakoitzaren bidaia gidari behar diren esaten die. Gidari bakoitzak bidaia bat edo bi egiten du urtean eta beste bat edo bi erreserban egoten dira.
- 6.- Furgonetak taldekoak dira?**
Hasieran norberaren kotxearekin joaten ginen. Ondoren, furgonetak alokatzen hasi ginen baina alokatzeko furgoneta gutxi zeuden eta kotxeak nahiko gaizki zeuden. Orduan furgonetak erostea pentsatu genuen. Lau urteko bizia izan ohi dute. Asteburuero 2.000 kilometro egiten dituzte gutxi gora behera, beraz, lau urtetan 400.000 kilometro. Talde bakoitzak lortu behar du furgonetak erosteko dirua. Euskal Herri mailan boletoak saltzen hasi gara. Senideek bidaia eragaria ordaintzen dute; gasolina eta mantentzea.
- 7.- Zergatik zaudete Mirentxinen?**
Senideak laguntzeko. Dispersioaren arazoak bizi izan ditugu eta gure ekarpena egin nahi dugu. Helburua oso argia da: dispersioaren arazoa, bidaia, aurre egitea. Denborarekin lortu izan dugu gero eta jende gehiago kontzientizatzea. Gure helburua urtean bidaia bat edo bi gehienegitea zen, baina gero jende gehiago sartzen hasi zen. Izan ere, asteburuero jende berdina joan behar bada, denborarekin erretzen da

eta utziko zuen.

- 8.- Zein izan dira egin dituzten bidaia irteerak?**
Javik eta Igorrek Joux la Ville eta Clermont Ferrand espetxeetara joan behar izan zuten, frantziar estatuko mediterraneotik gertu, eta hura bai izan zela tortura. Hamahiru ordu gidatzen joateko eta gutxiago itzultzeko. Senideak bisitara berandu iritsi ziren. Orain Almeriara egiten ditugu bidaia.
- 9.- Gainera, bisiten ordutegiak kontrolatu behar dituzte.**
Bisitak larunbatean dira. Almeriara joateko ostiralean Lopidanatik 20:00etan ateratzeko gara eta gau osoan zehar bidaia egiten da. Iristean gidariak ostatu batean lo egiten dute eta senideak furgonetarekin gelditzen dira kartzelara joan etorriak egin ahal izateko. Iganderako etxeratu egiten gara. Lehen senideek bisiten orduan aldatzeko aukera zuten baina orain ez.
- 10.- Istripuen beldurra izango duzue.**
Beldurra eta ardura. Senideak asteburuero bigidari berdinak egiten dituzte. Gidariak jakin badakia asteburu horretan ongi deskantsatu behar duela. Senideek gidariengan jartzen duten konfiantza eskertzekoa da.
- 11.- Bisitaren parte sentituko zarete.**
Bidaia bat beti berdina egiten duzue, azkenean harremanak sortu eta elkar ezagutzen gara. Senideak berdinak izan ohi dira, baina lagunak aldatzen dira. Zerrendak sei hilabeteko aldatzen dira. Inplikatu egiten zara. Senideekin zaudete eta indarra ematen diezu. Kontuan izan behar da gehienok bisitak egiten ditugula ere. Baina gidari zarenen gidatzera joaten zara.

Adi eskaintza bereziei!

948 562 107
948 564 275

web orria

des kon tuak

des kon tuak

astekaria

des kon tuak

irratia

Publizitatea egin!

Guaixe

publizitatea@guaixe.eus | publi@guaixe.eus